

## Herririk Herri |6|

Produktu transgenikoen kontrako aitorpena egin dau Mallabiko Udalak

## Ekonomia |10|

Launa upategiak sari bi eskuratu ditu Madrilgo 'Vino y mujer' lehiaketan



## Berbaz |9|

Xarles Bidegain: "Euskarak aurrera egiteko hiriaren itzala behar du"

# Korrikari ondoetorria emongo deutsagu bihar

Iurretatik Mallabiraino, Korrika hiru ordu eta erdian ibiliko da Durangaldean euskara aldarri hartuta.

Eskualdeko 80 elkartek baino gehiagok Korrikaren lekukoa herririk herri eroango dabe.

Kanpotik etorrita edo bertakoak izanda euskara galdu eta ikasi dabenak omendu ditue aurtan.

16-17



Apirilaren 5ean Gasteizen amaitu arteko bidea egingo dau Tuteran abiatu zen 16. Korrikak. Korrika

## Durango eta Zelaieta lotzeko proiektua onartu dabe

**Abadiño** • Zelaieta eta Traña-Matienan auzoak Durangogaz lotzen dituen bideko mogikortasun arazoak konpontzeko proiektua onartu dau Udalak. Zebra-bideak altxatuko ditue, semaforoak jarriko ditue eta Traña-Matienan eta Eroskiko sarreran biribilgune bana eraikiko dabe.

3

## Sistema digitalerako jauzia emon dau Zugaza zinematik

**Durango** • Teknologia barrietara egokitu guran, Zugaza zinematik digitalen emititzeko pausoa emon dau. Sistema barri horregaz, filmak 2Dtan zein 3Dtan eskaintzeko aukera izango dau. Aldaketa hau eginda "puntuak kalitatea" eskaini gura dabela dinoe aretoko arduradunek.

2

## Zamakonaren lanak Nualan gunean

**KULTURA** • Durangoko Santa Ana plazan dagoen Nualan dendan dagoz apirilaren 20a arte Hiart Zamakonaren lanak. Erakusketa horretan bildutako lanez eta margolaritzari buruz jardun jaku Zamakona.

13

## Zortzi urtean goma gaineko txapel denak irabazi ditu Abadiñok

**KIROLAK** • Tradizino bihurtzen dabilz Abadiño Sokatira Taldearen lorpenak. Guztira, 32 txapel daroez, bata bestearen atzetik, goma gainean. Aurtan be osokoa egin dabe. 560 kilo arteko azkena Elizondon (Nafarroa) eskuratu dabe.

23

### • Durangaldea

Martxoaren 31ko bonbardaketak gogoan Durangon eta Elorrian

4

### • Iurreta

Hezkuntzagaitiko diru-laguntzak emongo ditu Udalak

6

### • Otxandio

Herriko berbaera aztergai

8

**EXCAVACIONES JON**

MOTA GUZTITUEN LAKO INHUSKETAZ  
HONDAKINDUTZA

Jon Garitagoitia Galastegui

Pepe Gurrutxaga - 946 816 673 - 946 817 636  
Tel: 946 816 673 - Fax: 946 817 636

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

# HERRIRIK HERRI >

■ DURANGO

## Zinema digitalera eta 3D-tara egokitu dabe Zugaza zinema

Asteburu honetantxe hasita, hiru dimentsinotan ikusteko 15 film eskainiko ditue aurten zinema aretoan; 2010ean kopuru hori bibidertu gura dabe



Inbertsino "handia" eskatu arren, "hobekuntza" nabarmena ekarriko ei deutso Zugazari.

## Lana eztabaidagai hartzea ez da onartu

PSE-EEren mozinoaren urgentzia ez zen onartu

Edukiagaz ados egon arren, urgentzia aitortu ez eta INEM-Toki Udalbatzak egitasmoaren baitan jasotako diru-laguntzak eskatzea batzen eban PSE-EEren mozinoa eztabaidatzea trabatu dabe EAJk eta PPK, zinegotzi baten faltan eta alkaterearen kalitateko botoagaz; interes orokorreko zerbitzu edo obrak adostea eta krisiari aurre egiteko batzordea sortzea be jasotzen eban. Laguntzak ez eskatzea alderdi bion erantzukizuna dela dino PSE-EEK.

Deialdia martxoaren 17an kaleratu zela eta langabetuen kontratazioaren lan-kostuak finantzatzeko laguntza eskaria egiteko epea hila batean amaitzen dela esan dabe sozialistek. EAJk, aldiz, "egoera larria eta pisuzko arazoa dela aitortu arren", halako urgentziarik ez daukala deritzo, eta aztertze denpora badagoela. Dinonez, "gizasemeen ituna" egon da "hartu-emonak biguntzeko hobia zela ikusita". Ituna, baina, PSE-EEK bi bider apurtu ei dau aurten.

"Harrituta" hartu dabe arrazonomendua sozialistek, 10 urtean halakorik ez dela gertatu gogora-

tuz: "Baina, ulertzen dogu. Izan be, igaz Durangalde osoan egin eben eskaera, Durangon izan ezik; Eloorrio, Zornotza eta Ermuak 105 lanpostu sortu zitueen laguntzokin". Gaiagazko EAJren "sentsibilitate eza" erakusten ei dau horrek.

**INEM-Toki Udalbatzak proiektuaren baitan laguntza eskaria egitea proposatu da**

**"Langabezia %85 igon da"**

Durangon 1.329 langabe dagoela dino PSE-EEK —INEMen datuak dira, otsailean kaleratutakoak—, langabezia %85 igon da igazitik: "Egoera, baina, ez ei da ez larria ez lehentasunezkoa". EAJk, barriz, egoera "zinez larria" dela dino, baina mozinoa bestelako arrazoiengaitik aurkeztu dela: "Hainbat familiak bizi dauen egoera dramatiko norbere interesen alde erabiltzea da triste". "Lanpostuak sortzeko proposamen eraikitzailea" egin dela dino PSE-EEK, eta enplegua sortzea dabela interes bakar. ■ A.B.

## 'Berrikuntza eta komunikazioa krisialdian' berbagai hartuta

*Berrikuntza eta komunikazioa krisi garaian:* horixe hartu dabe berbagai Di-Da Komunikazio kooperatibak eta Gune grafik enpresak eratutako Kom'09 komunikazio jardunaldietan. Diseinuaren Espainiako Sari Nazionala (2008) irabazi eban Bartzelonako SUMMA enpresako Conrad Llorens eta Innobasque-ko (Berrikuntzarako Euskal Agentzia) komunikazio alorreko zuzendari eta arduradun Pilar Kaltzada izan ditue hizlari Landako Elkartegian.

SUMMA disziplina anitzeko aholkularitza taldeko zuzendaria *Estrategia y creatividad, claves para la construcción de marcas poderosas* izenburupean jardun dau. Marka-identitatean aditua da 1989an sortutako Bartzelonako SUMMA. 2009a berrikuntzaren Europako urtea dela aintzat hartuz, *Komunikazioa, berrikuntzaren kudeaketarako tresna estrategikoa* izan dau berbagai kazetaria eta idazlea ez eze 2007. urteaz geroztik Innobasque-ko sustapen eta komunikazio zuzendari nagusia denak. ■ A.B.



Landako Elkartegian izan dira komunikazio jardunaldiak. di-da

**Z**ugaza zinemak "pauso erraldoia" emon barri dau filmak teknologia digitala erabiliz dimentsino bitan (2D) eta hiru dimentsinotan (3D) eskainita. Halan azaldu dabe bertako arduradunek. Hiru dimentsinotan egindako 15 pelikula eskuratu ditu Zugazak aurten; 2010ean, kopuru hori bibidertuko dabe. Inbertsino "handia" eskatu deutso Zugazari teknologia barrietara egokitzeak; halan be, kalitateari eta aukerei jagokonez, "hobera egingo da nabarmen".

**EAEn hiru areto baino ez dagoz zine digitalera eta 3D-tako emonaldiak ikusteko teknologiarara egokituta**

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hiru zine areto dagoz teknologia horretara egokituta; Zugaza da pantaila bakarra daukienen artean bakarra.

**Irudi eta soinu gardenagoa**

Teknologia digitalak irudi zein soinu aldetik eskaintako "gardentasuna" nabarmendu dabe aretoko arduradunek. "Hiru dimentsinotan, barriz, denak dirudi erreala. Kontuan hartu behar da zortzi kamerak dihardueela grabatzen aldi berean". Asteburuan bertan eskainiko ditue pelikula bi hiru

dimentsiotan ikusteko. Pelikula horreek ikusteko, euro bat gehiago ordaindu beharko da; 2Dko pelikulak ikusteko ohiko sarrera ordainduko dabe ikusleek.

**"Puntako kalitatea"**

"Puntako kalitateko barrikuntza tekniko da jarri doguna, mundu mailan filmak estreinatzeke aukera emonez; esaterako, *Angeles y demonios* edo *Ice Age* pelikulak", aretoko arduradunen berbetan. "Teknologia aldetik itzela da, edozein gertaera edo ekitaldi zuzenean proiektatzeko aukera daukagu orain". Athleticek Bartzelonaren kontra jokatu dauen Errege Koparen finala eskainiko dabe Zugazan. Kontzertuak be eskainiko ditue, esaterako, Hanna Montana edo Jonas Brothers-enak.

Eguaztenean emanaldi berezia egin eben Zugaza zinemari; hiru dimentsinoko emanaldia izan zen. +Dendak Durango eta Iurretako merkatarik elkartearen bitartez, kanpaina berezia egin dabe horretarako; era berean, Durango eta inguruko ordezkari politikoak eta kultur teknikariak gonbidatu zitueen. ■ A.B.

**"Teknologia aldetik itzela da, edozein gertaera edo ekitaldi zuzenean proiektatzeko aukera daukagu orain"**



## ABADIÑO

# Durangotik Zelaietarainoko bidearen proiektua, onartuta

Independenteek eta jeltzaleek emon eben proiektuaren aldeko botoa



Matienako erdigunean eta Eroskiko sarreran eraikiko ditue biribilguneak. Iban Gorriti

**D**urango eta Abadiñoko Matiena eta Zelaieta lotzen ditueen BI-3333 eta BI-3323 errepideetan mogikortasunahobetzeko helburuagaz burutuko ditueen lanen baldintza plegua eta proiektua onartu ditue martitzeneko plenoan. Gobernu Taldeak eta jeltzaleek aldeko botoa emon eutsien aurkeztutako proiektuari, eta ezker abertzaleko zinegotziak abstenitu egin ziren.

### Milioi bat euro inguruko aurrekontua daukie onartu dabene proiektuko lanek

Matiena eta Zelaieta auzoetako herriguneak zeharkatzen ditueen errepide bietatik igarotzen den trafikoa abiadura moteltzera behartuko dauen sistemak ezartzea agertu eben obren azken helburu lez. Besteak beste, hiru kilo-

metroko errepide zatia berriro asfaltatzea, Matienako erdigunean eta Eroskiko sarreran biribilgune bana eraikitzea, zebra-bideak altxatzea eta zenbait gunetan semaforoak kokatzea be jasotzen dau onartutako proiektuak; guztira, 1.062.000 euroko aurrekontua dauka egitasmoak.

### Koherentzia arrazoituz

Urrian hartu eban BI-3333 eta BI-3323 foru errepideen jabetza Udalak; jeltzaleen eta independenteen botoekin egin eban proposamenak aurrera –abstenitu egin zen ezker abertzalea–, eta hitzarmena sinatu eben Aldundiagaz.

Martitzeneko batzarrean arrazoitu eban euren botoa ezker abertzaleko bozeroaleak: “Urrian, errepidearen jabetza hartzeak zeukazen argi-ilunak nabarmendu genduzen; beste udal zerbitzu batzuetara bideratutako diru-atal batzuetako diruagaz finantzatu

beharko den gastu inportantea eta urterokoa suposatuko daue-lako jabetzak Udalarentzat”.

Lanak burutzeko lehenengo pausutzat errepidearen jabetza hartzeko proposamena egin zenean legez, “koherentziagaitik”, eta ez dabelako trafiko arazoak konpontzeko modua denik uste, abstenitu egin ziren ezker abertzaleko lau zinegotziak. ■ I.E.

### Proiektua oztopatzerik ez dabela gura, baina ez dabela trafiko arazoaren konponbide moduan ikusten dino Basaurik

### Zebra-bideak altxatzea, semaforoak ipintzea eta biribilgune bi eraikitzea jasotzen dau proiektuak

## Taxi lizentzia arautzen dauen ordenantza

Martitzeneko udalbatzarrean eztabaida luzeena eragin eban gaia Gobernu Taldeak proposaturiko Taxien Ordenantzaren 6. artikulua aldatzea izan zen.

Indarrean dagoen ordenantza lar zorrotza dela eta inguruko herri guztietan ordenantzak zehazten ditueen transmisino baldintzak malgutzen dihardueela azpimarratu eban Jose Luis Navarro alkateak. Lizentziaren transmisino erraztea proposatu eban alkateak.

Independentei “kudeaketa publikoa pribatizatzen dinamikan” beste pausu bat emotea eta “plazagaz espekulaztea” egotzi eutsen ezker abertzaleak. Puntu hori hurrengo batzarreko atzeratzea eskatu eban, baina jeltzale eta independenteen botoekin onartu eban ordenantzaren aldaketa. Kontra bozkatu eban ezker abertzaleak. ■ I.E.

### Gaur egun indarrean dagoen ordenantza zorrotzegia dela nabarmendu eban alkateak

## ZALDIBAR

## Korrika girotzeko hainbat ekintza Zapatublai-en eta Gaztelekuan

Korrikari ongietorria emoteko eta herria girotzen joateko egitaraua prestatu dabe gazteek gaurko eta biharko. Lehenengo hitzordua Korrika Txikiagaz dabe, apirilaren 4ko 16:30ean. Gazte eta haurrendako txapa tailerra, eta eskularen txokoa antolatu ditue –testiguak eta petoak egiteko–, eta Korrikako argazkien erakusketa be izango da Jose Antonio Agirre plaza berrituan.

### Sagardao jaia, trikitilariak eta bertsolariak izango dira Korrika ailegatu bitartean

Nagusiagoendako aproposago, trikitilari eta bertsolariek girotutako sagardao jaia izango da ondoren. Apirilaren 4koa borobiltzeko, 21:15ean sartuko da Korrika herrian. Horren aurretik, baina, gaur, apirilaren 3an, Gaztetxean Korrikaren baitan sortutako *Bidaia Intimoak* dokumentala emongo dabe. ■ I.E.

## GARAI

# Nagusien elkartearen Batzar Orokorra domekan

Agertzeko dei berezia egin deutsee bazkideei

San Migel Nagusien Elkarteak Batzar Orokorra ospatuko dau datorren domekan, hilaren 5ean. Goizeko 11:30erako jarri dabe hitzordua, Otea-Loran elkartearen txokoan.

Hainbat puntu izango ditu bilerak, eta hasteko aurreko akta irakurri eta onartzea proposatu dabe. 2008ko balantze ekonomikoagaz be gauza bera egiteko asmoa daukie. Horreek egin eta gero, aurrera begiratzen hasiko dira, 2009 honetarako ekintzak zehazte aldera. Horretarako, proposamen bat aurkeztuko dabe batzarrean bertan.

Batzarreko beste gai garrantzitsu bat Zuzendaritza Batzordearen ingurukoa izango da. Izan

be, marko horretan aldaketakegitea aurreikusit dabe, eraberritze partziala garatuz.

### Luntxa be bai

Batzarra amaitzeko, galderakegiteko aukera be emongo dabe, bazkideek halan gura izanez gero. Gainera, luntxa be prest izango dabe hurreratutako direnek.

Nagusien elkarteak domekan agertzeko dei berezia egin deutsee bazkide guztiei. ■ M.O.

### Zuzendaritza Batzordean aldaketak egitea aurreikusit dabe, modu horretara eraberritze partziala garatuz

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

YAG AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarrien kalea, 10 - behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

**Podología**  
Podólogoa

**Podinara Urreta Jainaga**  
PODOLOGOIA 100. Emergencia

# GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

**HARATEGI**  
ARTISAU ERARA  
**ESPEZIALIZATUA**

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

**IKS**  
KALITATEA



DURANGALDEA

# Herriaren omenaldi beroa jaso dabe bonbardaketa sufritu ebenek

Asteon 72 urte bete dira bai Durango bai Elorrio faxisten hegazkinen jomuga izan zirela

**M**artxoaren 31, Durango faxisten hegazkinen jomuga izan zeneko eguna ekarri dabe gogora Gerediaga eta Berbaro elkarteek eta Kriskitin dantza taldeak antolatutako gomuta ekitaldiak. Zortzi urte dira goiz haretan botatako bonbak gogorazten ditueela, ahaztu ez daiten eta berriro gertatu ez daiten; memoria historikoa berreskuratzeko. Azken lau urteetan Durango-ko Udalaren babes eta laguntza izan dauen ekitaldiak hainbat

pai hotsak gogoratu zitueen bonbardaketei biziraun eutsienek. *Bakea eta adiskidetz*a lelopean ekin eutsan Udalak gomuta ekitaldiei. Kanposantuko kapera nagusian gerra zibilean hildakoen izenak batzeko plaka be jarri eben 2007an, izen barriak jakin ahala gaineratzeko. Gaitzespenik izan dau horrek, esaterako, Durango 1936 elkartearena, denak batera omentzeari "ulertezina" eritzita.

## Erakusketa eta berbaldia

Durangok ez eze Elorriok be ekarri gura izan dau, aurtan lehenengo biderrez, 1937ko martxoaren 31 haretan jasandako eraso. Udalak omenaldia eskaini eutsen domekan eraso haretatik bizirik irten ziren elorriarrei. Iturri kultur etxean, gainera, erakusketa dago zabalik, eta gaur berbaldia be izango dabe 19:30ean. ■ A.B.

**Durangon, eguerdian hilerrian egin eben ekitaldia; iluntzean, Andra Mariko elizpean**

herritar batu ditu, oraingoan be, Andra Mariko elizpean. Dantzarien aureskua eta lore sorta jaso zitueen gerra sasoiaren 10-12 urte zitueen "San Rokeko koadrilakoak".

Eguerdian hilerrian izan zen oroimen ekitaldia, Udalak eratu-ta. 1937ko martxoaren 31 haretan bonba hotsak iragarritzotako kan-



Iban Gorriti



Judit Fernandez

Bai Durangon bai Elorrian, bonbardaketak sufritu zitueenak omendu ditue. I.Gorriti / J.Fernandez

## Jai giroan egin dabe hausnarketa eguna gaztetxe eta gazte asanbladek

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako aldarriak izan zitueen ardatz Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek Elorrian ospatutako Gazte Egunean. Izan be, azpiegitura horren kontra egiteko konpromisoa hartuta daukie Durangaldeko gazte asanbladek.

AHT Gelditu! Elkarlanaren informazio panelak jarri zitueen herrian, eta eskualdeko gazte-

txe eta gazte asanbladen egoerari buruzko analisirako eta hausnarketarako eztabaidari ekin eutsien, eta, 70 lagun inguruk parte hartu eben. Triki-poteoa eta 200 gazte inguru batu zituen bazkaria be egin eben Sortzez Garbiaren basilikaren elizpean. Gazte olinpiadak ez eze, gaztetxeen aldeko eta AHTaren aurkako manifestazioa be izan zen, besteren artean.



J. Fernandez

Durangaldeko Behargintza  
Euzkoako Garapen Ageria  
Auzoaren Garapenaren Agentea

Mancomunidad de la Merindad de Durango  
Durangoko Merinaldearen Auzoakomunazgoa

HOBETUZ

EUROPAKO ERKIDEGOA  
Europako Gizarte Funtza

**LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO DOAKO IKASTAROAK**

**PASTELGINTZAKO PRODUKTUAK ETA OGIAK EGITEA**

**Iraupena:** 30 ordu.

**Data:** maiatzaren 11tik ekainaren 3a arte.

**Ordutegia:** 18:00etatik 21:00etara, astelehenetik asteazkenera

*Izena emateko epea: 2009ko apirilaren 28a arte*

**OHARRA:** Ikastaroko parte-hartzea mugatua da (langabetuak gehienez %40a)

Durangaldeko Behargintza    Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22  
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

[www.amankomunazgoa.com](http://www.amankomunazgoa.com)



**MERKATARITZA SARI NAZIONALA 2008**  
**DESKONTU BEREZIAK**  
**SAIL GUZTIETAN**  
**DOAKO FINANTZIAZIOA**

**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN  
LLODIO - ABADIÑO  
[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)



**Zer nahi duzu, sukalde bat ala zeure sukaldea?**



**ADITUAK GARA SUKALDE ETA BAINUGELAK**  
**EGITEN DUELA 40 URTETIK HONA**  
**ZATOZ GURE ERAKUSKETARA ETA PREZIO BEREZIEKIN**  
**JARRAITZEN DUGULA IKUSIKO DUZU**

Urbite poligonoa, 4.eraikina, pab.2 ABADIÑO

Tel. 94 681 35 19



## MALLABIA

# Herria transgeniko bako eremu libre izan daiten gura dauela dino Udalak

Genetikoki Eraldatutako Organismoen (GEO) aurkako aitorpena onartu dau Mallabiko Udalak

**M**allabia Genetikoki Eraldatutako Organismorik (GEO) bako eremu libre izendatzea erabaki dau Udalak azkenengo udalbatzarrean.

Produktu transgenikoek elikagaietan eta ingurumenean izan leikiezen ondorioen gainean dagozen zalantza zientifikoek sortutako kezka eraginda, udal ordezkariak laborantza mota horri ezeztua emon gura izan deusie.

Ohiko laborantza "kutsatu" barik produktu transgenikoak landatzeko dagozen eragozpenak eta horrek "kalitateko nekazaritzaren" alde egiten den eremuetan izango dituen ondorio ekonomikoak dira erabaki hori hartzeko Udalak emondako arrazoietakoz batzuk.

## Transgenikoen kontra

2005ean tokiko, eskualdeetako eta espainiar Estatuko hainbat erakundek euren lurraldeak organismo genetikoki aldatuetatik edo transgenikoetatik libre aitortzeko daukien eskubide legalaren aldeko kanpaina martxan jarri eben.

Eskualde eta tokiko erakunde askok GEOTatik libre dagoen eskualde izendatu ditue euren lurrak. Europan, dagoeneko, 230 eskualde eta 4.200 udalerri baino gehiagok egin dabe aldarrikapen hori. Udalerri horreetatik 61 Euskal Herrikoak dira.

**Transgenikoek izan leikiezen ondorioen gaineko zalantza zientifikoak kezka eragiten dauela azaldu dau Udalak**

**Europar 4.200 Udalerri egin dabe bat ekimen honekin; 61ek Euskal Herrian**

Tokiko eta eskualdeko agintari horreek janari genetikoki aldatuen kontra dagozela aldarrikatu eta laborantza transgenikoa desagertarazteko eskubide legala onartzea eskatzen dabe.

Udal ordezkariak jakitera emon dabenez, "Europako eskual-



Mallabiko lurretan transgenikorik ez erabiltzeko erabakia hartu dau Udalak. Judit Fernandez

de eta udal askoren eritzia da gaur egungo Europar Batasuneko legeak ez dituela tokiko biztanleak eta erakundeak babesten", eta "tokiko erakunde eta gobernua, produktu transgenikoak landatu behar diren ala ez erabakitzeko ahalmena eskatzen dogu", gaineratu dabe..

**Ohiko laborantza "kutsatu" barik transgenikoak landatzeko eragozpenak dagozela argudiatu dabe**

Transgenikoen kontrako ekimen honekin hainbat sindikatuk (EHNE, CCOO, EGAS, ELA, ESK, HIRU, LAB, STEE-EILAS, UGT), kontsumitzaile elkartek (EKA, UKE, UCE), garapenerako zein osasuneko erakundek zein profesionalak, Eguzkik eta Ekologistak Martxanek bat egin dabe. ■ P.M.

## IURRETA

# Hezkuntzagaitiko diru-laguntzak bideratuko ditue, lehenengoz

Apirilaren 20tik maiatzaren 8a bitartean aurkeztu leitekez eskaera-orriak

Hezkuntzagaitiko diru-laguntza jasotzeko aukera izango dabe Iurretako familiek. 2008-2009 ikasturteagaz lotutako gastu orokorrak ordaintzeko laguntzak dira, eta apirilaren 20tik maiatzaren 8a bitartean egin leiteke eskaera, Udal txean edo Ibarretxe kultur etxean.

Derrigorrezko hezkuntza bereizten den aldi bakoitzagaz lotutako tarreak zehaztu ditue. 0tik 2 urte arteko eta DBHko 1. eta 4. maila arteko seme-alabako, 100 euroko laguntasuna jasotzeko aukera izango dabe gurasoek; 60 euro LHko 5. eta 6. maila arteko tartean, eta 40 euro LHko 1. eta

4. maila artekoan; Haur Hezkuntzan dihardueen seme edo alaba bakoitzeko, 25 euroko laguntza bideratuko dabe. Herrian edo herrikanpora dihardueen eskola-umeen hezkuntza gastu orokor-

**Denera, 460 gaztetxok izan leikie diru-laguntza horreek jasotzeko aukera**

rrean lagundu gura dau Udalak; hezkuntza publikoan zein pribatuan dagoela, ikasturte horretan Iurretan erroldatuta eta eskolan

egotea dira betebeharreko baldintzak, Iñaki Totorikaguen ahalak azaldu dauenez. Denera, 460 gaztetxo izan leitekez onuradun.

## 28.000 euroko atala

Totorikaguenak azaldu dauenez, udal aurrekontuan 28.000 euroko diru-atala dago gordeta laguntza horreetarako. Laguntza unibert-sala da, errenta-aitorpenagaz lotu bakoa. "Familia batentzat, hezkuntzagaz lotutako gastua potoloa da, eta horri aurre egiten lagundu gura dogu", argitu dau alkateak. Lehenengoz bideratuko ditu halako laguntzak Udalak. ■ A.B.

## ATXONDO

# Hiru ume hartuko ditu laster haurtzaindegia

Apirilean zabaltzea aurreikusi dau Udalak

Udalak eraikina atondu dauen aurrefabrikatutako eraikinean apiriletik aurrera zerbitzua eskainiko dauen haurtzaindegiko lehenengo erabiltzaileak. Apatako hiru ume izango dira. Datorren ikasturterako beste bost bat umek izena emongo dabela itxaroten dabe Udalan, eta guztiendako moldatu dabe eraikina.

Oraindino, 75 metro karratu inguruko haurreskola izango den eraikinaren inguruetan zenbait lan egitea falta dela, eta Aste Santutik bueltan zerbitzua emoten hasi ahal izatea itxaroten dabela adierazo dabe Gobernu Taldeko bozeroaleek.

Hurrengo ikasturterako 6-8 ume inguru hartuko dituela haurreskolak aurreikusi dabela esan deuskue. Gurasoak lanean dagozenez haurtzaindegia euren herrikan atera beharrik barik izango dabe. Behin haurreskola hartzen dauen lekua atonduta, mantentzen dabela Udalan ardura izango da, eta Haurreskolen Partzuergoarena kudeaketa. ■ I.E.

**75 metro karratu inguruko eraikina atondu dau Udalak, eta Haurreskolen Partzuergoa arduratuko da kudeaketaz**

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan

**UNDARRI BIKE**  
Bizikleta salmenta eta konponketa.  
Bilbebarrieta, 5 - bajo  
48215 IURRETA  
94 621 79 02  
www.undarribike.com  
undarribike@undarribike.com

Hemen agertu gura badozu  
**deitu!**  
94 621 79 02

## ELORRIO

# Errepidearen herriko zatia Udalaren kargu

Herria zeharkatzen dauen errepide zatia Udalaren kargu itziko dau Aldundiak

Herria zeharkatzen dauen errepidea, San Pion hasita 500 metroan, Udalarilagako deuto Aldundiak, Udalak berak halantxe eskatuta. Laster San Pio inguruan biribilgunea egiten hasiko dira, eta bidezati hori Udalaren kargu badago tramiteak arindu eta sortu leitekezen arazoak errazago konpondu leitekezela pentsatzen dabe. Izan be, bitartekari barik, Udalak berak hartu ahal izango ditu erabakiak.

**Modu horretara, San Pion biribilgunea egiteko tramiteak arinduko ditue**

Herria zeharkatzen dauen zati osoa itziko deutsie Elorriori, 500 metro guztira. Hori da eskatu leiteken tramurik txikiena.

San Pion egingo daben biribilguneak trafikoa astirotzeta eta bideratzea dau helburu. Miotatik datorren bidea Durangotik datorrenagaz lotzeko lotunea be izango da etorkizunean.

Bidea Udalaren esku gertzeak esan gura dau tramu horretan egingo diren lanak bere esku geratuko direla; Udalak erabakiko dau gorune barriak egin ala ez, esaterako. Hori bai, mantenu lanei be aurre egin beharko deutsie: "Egia esan, lan txikiak egin behar izan doguzenetan, goruneak pintatzea adibidez, geuk egin izan doguz; egoera ez da hainbeste aldatuko", dino Niko Morenok.

### Lorategien zainketa

Herriko lorategien eta auzo bideko bazterren garbiketa eta zainketa Eulen enpresari esleitu deutsie urtebetez. Orain arte, 154.000 euro erabili izan dira horretarako; dena enpresa bakarraren esku itzita, 130.000 euro bideratuko ditue, 24.000 gitxiago. ■ J.D.

**Lagapena egindako 500 metroetan Udalak erabakiko dau zer egin; mantenua be euren kargu geratuko da**

**Auzobideak eta lorategiak garbitzeko ardura Eulen enpresari esleitu deutsie, 130.000 eurotan**



San Pion hasita, 500 metro egongo dira Udalaren kargu.

## IZURTZA

# Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Gobernu Taldeak gaurko udalbatzarrera ekarri dau Udalari aholkularitza eta laguntza teknikoa emoteko Gesmunpal enpresak kontratatzeko proposamena. Inguruko hainbat herritan egiten dihardueela dinoe Gobernu Taldeko bozeroaleek, eta emaitza onak emon dituela Durangaldeko beste herri batzuetan.

Udalak, jarduera ekonomikoan dihardueen enpresetatik bildu behar dauen zergaren egoera aztertzeko kontratatuko dabe aholkularitza zerbitzua.

Ekonomia jardueren gaineko zerga ez dela behar den moduan eta behar beste biltzen susmatzen dabela azaldu dabe, eta horregaitik erabaki dabela enpresaz enpresako azterketa burutzeko proposamena egitea aurreratu deuskue Udalean. Herrian jarduera ekonomikoren bat burutzeagaitik zuzeneko zerga ordaindu behar deutsie 2.000.000 eurotik gorako fakturazinoa daukien enpresa handiek Udalari, eta hori betetzen dabela ziurtatu gura dabe. ■ I.E.

**Euren jarduera burutzeagaitik enpresa handiek jagoken zerga ordaintzen dabela segurtatu gura dau Udalak**

# Durangoko

# Pasinue

2009

## LA PASIÓN DE DURANGO

DEL 10 DE ABRIL - 5 DE MAYO - 9 DE ABRIL - SANTA ANA EN PARQUE - 21:30h

## OTXANDIO

# Herriko euskara jasotzeko lana bultzatuko dau Udalak

Bertako berbaera zaindu eta ezagutzera emoteko tresna izango da

Otxandioko euskara jasotzeko lana bultzatuko dau Udalak, Eusko Ikaskuntzaz sinatutako hitzarmenaren barruan. Bertako berbaera zaindu eta ezagutzera emoteko kezka “aspaldikoa” deladino Aritz Otxandiano alkateak, “hitanoa, adibidez, galtzeko arriskuan dago-eta”.

Otxandioko berbaera jasotzeko lanak fase bi edukiko ditu. Lehenengoan, adineko zenbait otxandiar elkarrizketatuko dabe. Dagoeneko, Udalaren azkenengo Osoko Bilkurak lan hori onartu dau eta hamabi hileko iraupena edukiko dau. Horren emaitzak liburu

**Adineko hainbat otxandiar elkarrizketatuko dabe, eta hemendik urte betera emaitzak argitaratuko ditue**

**Aurrerago, bigarren fasean, lan berean Otxandioko euskararen bilakaera aztertzea be aurreikusitako dabe**

batean eta ikus-entzunezko CD batean argitara emongo ditue. Aurrerago, herriko berbaera jasotzeko lanaren bigarren fasean hain zuzen be, Otxandioko euskararen bilakaera aztertuko dabe.

**Herriaren berbaera**

Euskarak herria antolatu eta belau-naldiz belaualdiko nortasuna finkatu dau. Otxandioko idazle Felipe Arrese Beitiaren olerkiek hizkuntza bera herri nortasunagaz lotzen eben: “Baldin euskera bizitzen ez bada hiltzat daukadaz foruak” (*Ama euskereari azken agurrak*, 1879). ■ Maria Gonzalez

## MAÑARIA



Jabier Arteaga alkatea egon zen inaugurazioan. Mañariko Udal

## BERRIZ

## Denetariko tailerrak Gure Izarrak taldeak antolatuta

Barreterapia tailerra hilaren 24ra atzeratu dabe

Gure Izarrak Berrizko emakumeen taldeak hainbat tailer antolatu ditu. Horreetako azkena, barreterapiaren gainekoa, gaur arratsaldean izatekoa zen Anbulategi Zaharrean, baina klaserik osatu ez dabenez apirilaren 24ra (18:30ean) atzeratu dabe. Izenak berak adi-

tzera emoten dauen legez, gorpuztean pilatutako stresari kanporako bidea erakustea dau helburu tailerrak, horretarako umorea eta barrea gidari dituela beti be.

Kontu bera gertatu jako informatika tailerrari be. Ordenagailua eta Internet erabiltzeko oinarritz-

## Haurtzaindegia inauguratu eben barikuan

Orain dela hilabetetik erabiltzen dabe herriko hiru haurrek bere sasoian jubilatuen egoitza izan zen lokalean egokitu daben haurtzaindegia.

Jolaserako, bazkaritarako, lotalditoxa egiteko eta sikomotrizitaterako espazioa be egokitu dau bertan Haurreskolen Partzuergoak. Hain zuzen be, erakunde horretako eta Udaleko ordezkariak izan ziren joan zen barikuko inaugurazioan.

Dantzarien emonaldiagaz eta ondorengo luntxagaz ofizialki martxan ipini dabe Mañariko haurreskola; aurreikusitako agazko zenbait hilabetetako atzerapenagaz bada be. Orain, maiatzean zabalduko dabe datorren ikasturterako izen emoteko epea. ■ I.E.

ko nozinoak erakustea dau helburu ikastaroak eta, atzeratu beharra izan daben arren, laster hasiko dela aitatu dabe Gure Izarrakeko kideek. Tailerrez gainera, *Ondo jaten ikasteko* izeneko mahaingurua be antolatuko dabe laster.

Azkenik, Aste Santua joan eta gero, Gure Izarrak taldearen XV. urteurrena ospatzeko kimen gehiago antolatuko ditue. ■ J.D.

**‘Ondo jaten ikasteko’ mahaingurua antolatuko dau laster Gure Izarrak taldeak**

## DURANGO

## 1.200 lagunetik gora batu ditu ‘Durango Ardo Saltsan’ azokak

‘Durango Ardo Saltsan’ azoka enogastronomikoak 1.200 lagunetik gora batu ditu. Antolatzaileen berbetan “guztiz arrakastatsua” izan da 2. edizioa izan dauen honetan jasotako eran-



tzuna. “Lehenengo ordutik gainezka zegoen Landako Gunea, jardunaldiak aurrera egin ahala giro nasai eta atsegina nagusituz”. Harrera “ezin hobea” izan eben das-taketek, mahai-inguruak zein tamaina txikiko sukaldaritzak.

Nazinoarte mailako 56 upategik eskainitako 145 ardao ez eze, olio, urdaiazpikoa, slowfood produktuak, kafea, ura... izan ziren protagonista.

## DURANGALDEA

## Ahotsakek argazkiz jantzitako jesarraldia eratu gura dau

Elkarrizketaren aldeko jesarraldia antolatu gura dau, Durango-ko Andra Maria elizpean, Durangaldeko Ahotsak taldeak. Ekitaldi “xumea” baina “esanahiz betea” antolatu gura dabe eta horretarako herritar guztiei, bereziki politikoei, “Euskal Herriak bizi dauen gatazka” konpondu ahal izateko berba egitera jartzeko deia luzatu deutsee. “Arazoak berba eginez konpondu ahal eta behar direlako, Durangaldeko emakumeok elkarrizketaren alde gaude”: mezu horrekin ados dagozen emakumeen argazkiak jarriko ditue ikusgai ekitaldian, “ahalik eta mezu anitz eta zabalena emoteko”. Argazkiak batzen hasita dagoz, “oso harrera beroa” jasoz. Parte hartzera deitu dabe, argazkiak honako helbidera helarazo leitekezela jakinarazoz: *etxekue@gmail.com*

## AHTaren aurkako aldarria hilero Durangaldean

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako protesta ekitaldia egin eben atzo AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, eta gaur be elkarretatzatzeak egingo ditue. Hile bakotxeko lehenengo eguenean eta barikuan antolatzen ditue protesta ekitaldiak. Elorriori, Txintxirri ikastolaren aurrean egin eben protesta, 18:30ean. Zornotzan eta Euba auzoan 19:00etan elkartu ziren, eta Durangon, barriz, 19:30ean, Batzokiaren aurrean *Obrak gelditu! AHTrik ez!* lelopean. Gaur, Atxondon 19:30ean elkartuko dira Hirubideko autobus paradan, eta Abadiñon 19:30ean semaforoetan.

## IURRETA

## Bixente Kapanaga amaituta


Azken ukituak baino ez ditue falta 1,3 milioiko inbertsinoa eskatu daben Bixente Kapanagako urbanizazio lanek. Altxariak jartzea geratzen da, eta datorren astean aurreikusitako kalea trafikoz zabaltzea, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. Baina, 90.000 euro inguruko soberakina egon da, eta hori Dantzari ingurua konpontzera bideratuko da: “Herriguneari jarraipena emonez konponduta dago Dantzari zati bat. Askondo, Bixente Kapanaga eta Bidebarrieta arteko zatia, baina, zaharkituta dago eta hori be urbanizatuko dogu, inguruari identifikazio gehiago emoteko; bidegurutzetako hobetu eta batasuna emoteko”.



## BERBAZ &gt;

# “Jendeak darabilen euskara aztertzen jarraituko dut euskaltzain naizela ere”

Xarles Bidegain euskaltzain oso izendatu dute Urkiolan. Durangaldearekin hartu-eman estua du.



## Xarles Bidegain •

▪ 62 urte ditu

▪ Irakaslea da Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatean.

**E**uskaltzaindiak, Urkiolan egindako azken batzarrean, Xarles Bidegain euskaltzain oso izendatu du. Bidegainen curriculumak euskararen alde egindako lana agerian uzten du: Euskal Mintzairako katedraduna da Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatean. Euskaltzaindiko Atlasgintza eta hiztegi batuko lan-taldeetan dihardu. Baionarra den arren, Durangaldea barru-barrutik ezagutzen duela azaldu digu.

**Zelan hartu duzu Euskaltzaindiako 31. domina jasotzeko erabakia?**

Erabakiaren berri izan nuenean, poztasunez hartu nuen albistea. Aurretik ere beste behin proposatu ninduten, baina ez zen aurrera irten.

**Zer ildori jarraituz lagunduko diozu Euskaltzaindiari?**

Ikertzen dudana ahozko euskara da, eta bide horretatik jarraituko dut. Jendeak elkarren artean darabilena aztertu nahi dut, eta ez prentsan edo administrazioan erabiltzen dutena.

**Sarrera hitzaldia egiteko lekua aukeratu duzu?**

Oraindik ez dut erabaki, baina ziur aski Baionan egingo dut. Erroak barnealdean ditudan arren, hoberena hirian egitea da, euskarak aurrera

egiteko eta hurrengo belau-naldietara iritsi ahal izateko hiriaren itzala behar baitu.

**Hitzaldi horretan zer gai lantzeko asmoa duzu?**

Hori ere oraindik ez dut guztiz erabaki. Baliteke orain arte egindako lanari buruz hitzaldi klasiko bat egitea. Agian, Iparraldeko euskararen inguruan dudak kezka buruz hitz egingo dut, ez baikara agerian bizi. Posible da Iparraldean euskaldunok garenari buruz hitz egitea.

**Euskararen Atlas sortzen hainbat urte eman eta gero, badirudi lan horri buruzko datuak publikatzen hasiko zaretela.**

Aspaldi esan genuen kalean izango zela, baina oraindik ez da argitaratu. Lehenengo eta bigarren tomoak inprentan dauden arren, ezin da data

zehatzik jakitera eman. Atlasa 700 orrialdeko 10 tomok osatzen dute. Informazio asko Internetez zabaldu gura dugu, jendearen iritziak jasotzeko.

**Zenbat denbora behar izan duzue Atlasa prestatzen?**

20 urtean dihardut Euskal Herriko Atlas egiten. Lan handia da; tokian tokiko hizkera aztertze denbora behar da.

**Atlasa egiteko lan-taldea sortuko zenuten.**

Bai. Bakoitzak gehien ezagutzen duen lurraldeko elkarrizketak egin ditu. Ni Baxenafarroako eta Zuberoako elkarrizketek arduratu naiz.

**Proiektu horretan, zer lan-dinamika erabili duzue?**

Tolosan ikasketak egiterakoan hango Atlas nola egin zuten ikusita, hemen ere egin beharra zegoela konturatu nintzen. Gaur egun eskura ditugun baliabideak erabiltuta, Euskaltzaindiaren bidez bide luze honi ekin genion. Jendearekin ehundaka elkarrizketa egin, informazioa landu beharra dago eta hitz bakoitzeko mapa bat egin behar da. Atla-

“Euskarak aurrera egiteko eta belaunaldi berrietara iristeko hirietara heldu behar du”

“Euskal Herriko Atlasa ekimen interesgarria eta altxor handia izango da ”

“Mañarian, Berrizen eta Arrazolan Atlasa osatzeko elkarrizketak egiten jardun dugu”

sa altxor bat da. Hitza bera nola erabiltzen den galdetzeaz gain, hitzei eta hizkuntzari buruzko galderak egin dizkiongu elkarrizketatu bakoitzari.

**Lan erraldoia izan dela esan daiteke, beraz.**

3.000 galdera egin ditugu 145 lekutan.

**Durangaldean ere ibili zarete?**

Bai: Mañarian, Berrizen eta Arrazolan (Atxondo) elkarrizketak egin ditugu.

**Inguru honetako euskara ondo ezagutzen duzu.**

Bai. Denbora luzez ibili naiz Durangaldean eta Oizen magalean. Zorte handia izan da ezagutu ditudan pertsonak ezagutzea.

**Azken bi hamarkadetan lanaren zer balorazio egingo zenuke?**

Lan oso interesgarria da. Kanpoko lana egin ez duenak ez daki lekuan lekuko testigantzak jasotzea zer izan daitekeen. Askok ikasi dut, eta ez bakarrik hizkuntzari buruz. Oso esperientzia polita izan delakoan nago.

■ Jone Guenetxea

EKONOMIA<sup>></sup>

&gt;BERRIZ

# Launa upategiaren ardao bi saritu ditue

Madriren ospatu daben 'Mujer y vino' lehiaketan lortu ditu sariak



Madriren jaso zituen sariak Launa upategiko arduradunetarikoa den Usuri Unzaluk. Launa

Launa upategiak aurkeztutako ardao bik saria lortu dabe Madriren (Espainia) ospatu den *Mujer y vino* lehiaketan. Abenduan merkaturatutako 2006ko Launa kiantza eta 2004ko Launa erreserba izan dira sarituak; apirilean merkaturatuko dabe azken hori. Hurrenez hurren, zazpi eta 15 hile arteko ontze prozesua izan daben ardaoan artean eta 15 hile baino gehiagoan ondu diren ardaoan artean jaso dabe 2. saria: Rubí saria. Bigarren edizinoan dauen lehiaketan Euskal Herriko eta Espainiako hainbat jatorriko 300 bat ardao aurkeztu ditue.

Durangaldeko Launa upategiak "oso pozik" hartu ditu sariak

Sortzean, ekoizpenean edo merkaturatzean emakumearen parte-hartzea gixienez %50ekoa izan daben ardaoak izan dira saritara aurkeztutakoak. Ardaogintzan andren parte-hartzea bultzatu gura dau lehiaketak. Egoitza Berrizen daukan Launa upategiko arduradunek "oso pozik" hartu ditue sariak. "Urte askotako lanaren errekonozimendua da; urteak daroaguz lanean eta sariak

ilusinoa emoten dabe", argitu dau Usuri Unzaluk. Lehiaketen zirkuituan sartu barria da Launa, 2005ean La Guardian zabaldutako upategian ondutako ardaoekin. 1978an sortu eban lehenengo upategia Launak, Villabuenan. ■ A.B.

2005ean La Guardian zabaldutako upategian ondutako ardaoekin lortu ditu sariak Launak

&gt;DURANGALDEA

## Greba orokorra deitu dabe maiatzaren 21erako

Hego Euskal Herrian deitu dabe ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiruk greba

Maiatzaren 21ean Hego Euskal Herrian greba orokorra egiteko deia egin dabe ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiruk. "Krisi ekonomikoa dela eta enplegu suntsiketa, patronalaren xantaia, gizarte eta aurrekontu politikarik eza, eta krisiari aurre egiteko Euskal Herri mailako tresnak" dira deialdiaren arrazoi nagusiak.

Nabarmendu dabenez, "lan munduak erabateko erantzuna emon behar deuto krisiari, langileak dira eta biktima nagusi, egoera sozial eta ekonomiko gatz horren sortzaile izan barik".

Dinoenez, "patronala krisiaz baliatu da, eta lan-taldeen egituretan doikuntza zorrotza egin gura dabe, etekinak orain eta gero segurtatzearen. Lan-taldeak txikiagoak izango dira, atomizatuak eta babesbakoak".

Hego Euskal Herriko administrazio publikoen politikari "guztiz liberala" deritzoe: "kapitalaren eta enpresariaren mesedetan eta egoera ahulean dagoen taldeen behar eta lehentasunen kaltetan". Erabakiguneak aldatzea be eskatu dabe: "Politika ekonomiko, sozial eta laboralak Eus-

&gt;DURANGO

## Krisiaren nondik norakoez jardun dabe Maristetan

Krisiaren aurkako jardunaldia antolatu dau, asteon, Maristak ikastetxeak. Lanbakoiei, enplegu-erregulazio espedientearen sartuta dagoen langileei eta oro har interesa izan leikien herritar guztiei zuzendutako jardunaldiak hainbat arlotan lanean diharduen adituak batu zituen mahaiaren bueltan.

*Biharko beharretarako* izenburupean, gaur egungo krisi egoeraren gaineko nondik norakoak izan zitueen berba guztiak, hezkuntza zein lan arloan diharduen gonbidatuak.

'Biharko beharretarako' izenburupean eratu zitueen herritar orori zabaldutako jardunaldiak

Durango Maristak ikastetxeko zuzendari Julen Elgetak eta hezkuntza zentroak bertan eskaintako etenbako prestakuntza arduradun Daniel Irazolakez eze, Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako teknikari José Maria Mediavillak be hartu eban berba krisiaren kontrako jardunetan. Eurekin batera, INEM enplegu bulegoko eskualdeko zuzendari Armando Reyesek, SARTU Lanbide Heziketako arduradun Maria Gutiérrezek eta Durangaldeko Behargintzako zuzendari Augusto Uriartek be aztertu eben gaia. ■ A.B.

Enplegu zein hezkuntza arloan diharduen gonbidatuak izan ziren

■kolaborazinoa



Jabier Meruelo  
CNT sindikatua

## Horrelakoa da bizitza

Futbol munduari buruz eztabaida tipikoetako bat hau da: "Nola kobratu ahal dute hainbeste diru baloi bati ostikadak emateagatik?". Baina, segidan entzuten da: "Nik egoera horretan egongo banintz gauza bera egingo nuke". Hau da orokorrean XXI. mendeko pentsamendu nagusia: besteek baino gehiago edukitzea. Orduan, zergatik harritzen gara txanponaren beste aldean gaudenean?

Max Stirneren iritziz, aberatsek pobreziaaren existentziaren errua daukate, pobreak aberastasunarena daukaten neurri berean. Esaldi honek errealitate gordinaren usaina dauka.

Patxi Lehendakari indioilar bat bezala agertzen da telebistan, eta beste aldetik Ibarretxek, triste-triste, ostrukak egiten duten bezala, bere burua ezkututzen du. Aholku bat emango dizut: jubilatuz zaitez. Ez, ez nabil txantxetan: badakit jubilatzen bazara zure soldata izan denaren %50 bakarrik kobratuko duzula; hori 45.000 euro urtero izango litzateke, bizitza osorako. Ziur aski, jendeak pentsatuko du ez dela hainbeste lehendakari batentzat, baina, zer arrazo kobratzen dugu besteok?

"Bizitza horrelakoa da". Bai, mundua errotik aldatu nahi dugunok badakigu hori, eta horregatik ez gara aspertuko justizia soziala behin eta berriz exijitzeaz.

Munduko ekonomia, balantza bat bezalakoa da: alde batean kapital asko ezartzen badugu, beste aldean desorekatuko egiten da; hemen pobrezia sortuz eta munduko beste lekuetan heriotza ere bai.

Nahiz eta oso interesgarriak izan, izakiak 2,4 milioi urte darama existitzen aditu ekonomialaririk gabe, J.M. Keynesen eta M. Friedmanen laguntzarik gabe (azken horik neoliberalismoaren aitatariko bat da).

Zergatik gara utopikoak sistema kriminal honen aurka gaudenok?

Nire ustez, gaur egun utopiarik handiena sistema honekin gauzak aldatu ahal direla sinestea da.

UGT-Euskadiren ustez "frontismoa sendotu" baino ez dau egiten greba deialdi honek



KULTURA<sup>></sup>Durangoko  
Pasiñue

**D**urangoko Pasiñuen urte askoan isilean egin duten lana eskertzeko, Santa Anako plaza agertzen duen margo bana oparitzuz omenaldia egin zieten lagun biri: Iaz hildako Juan Jose Ziarrusta Durangoko alkatearen familiak eta Asun Canalesek jaso zituzten Juan de Iciar elkartearen oroigarriak. Hunkituta hartu ere. Aurtengo Pasiñueren aurkezpena egin zuen berbaldian Aitziber Irigoras alkateak ere, "Durangoko Pasiñue aurrera ateratzeko urtero-urtero musutruk lan egiten duen jende guztia" goraipatu zuen.

120 partaide izango dira apirilaren 8an, 9an eta 10ean egingo duten ikuskizunean, 21:15etik aurrera Santa Anan. Tartean, aurkezpenean alkatearen, Juan de Iciar elkarteko lehendakariaren eta Pasiñueren zuzendariaren aldamenean agerraldian izan ziren, ohitura denez, Jesus eta Mariaren papera egingo duten durangarrak: Iñigo Pastor, orain 5 urte ere Jesusen lekua hartu zuena berreskuratu dute aurten, eta Fermi Ordoñez izango da Maria. Biek dute aurreko esperientzia paperok lantzen.

Antzezle aritzeko entseguetan jardun duten aktoreen lanaren emaitza ikusteko, Durangoko Santa Anako Arco tabernan izango dira sarrerak 7 euroan salgai, eta Durango kanpotik etorri nahi dutenei erreserbak egiteko aukera eskaintzeko ipini dute honako telefono zenbakia: 656 777 321. I.E.



Judith Fernandez

## 12 &gt; Kantatzen duen herria

Martxoaren 31n izan da Durangoko Andra Maria elizan egin dute *Kantatzen ez duen herria herri hila* da film laburraren aurkezpen ekitaldia.



## 13 &gt; Hiart Zamakona margolaria

Apirilaren 20a arte Santa Ana plazan dagoen Nualan gunean ikusgai ipini dituen koadroez eta margolaritzaz aritu zaigu Hiart Zamakona gaztea.

## FILM LABURRA&gt; AURKEZPENA

**M**artitzena, martxoaren 31, hautatu dute *Kantatzen ez duen herria herri hila da* lana jendaurrean aurkeztu eta lanean parte hartu duten lagunak omentzeko. "Zure iragana ezagutu gabe, ez duzu zure etorkizuna ondo ezagutuko" esaldiarekin eta film laburrerako bildutako soinu eta irudiekin, pentsatza eta memoria gordetzerantz bultzatu gura gaituzte martxoaren 31n.

Iban Gorriti kazetariak zuzendu duen filma da *Kantatzen ez duen herria herri hila da*, eta 1937ko bonbardaketa bizitako hiru lagun bildu dituzte bertan: Alberto Barreña, Jesus Moreno eta Jose Antonio Olea umeak ziren 1937an, eta ordutik "lurperatuta" izan den oroimena berreskuratzera gonbidatu dituzte egileek.

Bonbardaketa bizi  
izan zuten hiru  
lagunen testigantza

Durangaldeko lagun  
asko aritu dira film  
laburra osatzen

Martxoaren 31n gertatutakoa gogoan izan eta "ahantzuraren kontra borrokatzeko" helburuz burutu dute ikus-entzunezko lana. Hainbat jende batu da proiektura: Iban Gorriti, Maria Gonzalez, Andoni Lupiañez, German Rodriguez, Iker Viana, Ibai Elortza, Alberto Barreña, Jesus Moreno, Jose Antonio Olea, Julene Euba, Aner Ruiz, Mikel Nuñez, Jokin

## Urteetan isilik eta "lurperatuta" egon dena, pantailara eramana

Iban Gorritik zuzendu duen lana aurkezteko ekitaldia egin zuten martitzenean, martxoaren 31n, Durangoko Andra Maria elizan



Txelu Angoitia

Lacalle, eta aurkezpenera hurre-ratuko diren lagun gehiagok ere bere laguntza eskaini du dokumentala aurrera ateratzeko.

Duela 72 urte Durangok jasan zuen bonbardaketaren testigu izan ziren Alberto Barreña, Jesus Moreno eta Jose Antonio Oleak, Martxoak 31 talde desagertuaren kan-

Emanaldia ez ezik,  
omenaldia ere egin  
zuten Andra Marian

ta bat abesten dute. Aldi berean, euren testigantzak konpartitzen dituzte hiru lagunek.

Leku eta egun seinalatuan egin zuten, martxoaren 31n Andra Mariako elizan, *Kantatzen ez duen herria herri hila da* lanaren emanaldia, eta protagonista diren hiru gizonak omendu zituzten. ■ I.E.

## KORRIKA KULTURALA&gt; EMANALDIA



Judith Fernandez

### 'Anitzak hitzak': hip-hop eta bertsoak antzokian

Bihar izango dugu Korrika gure herriak aldarrikapenez zeharkatzen, eta horren aurretik, joan zen zapatuan, Plateruena antzokian izan zen AEK-k antolatzen duen Korrika Kulturalaren Durangaldeko geldialdia.

Anitzak elkarteak bultzatuta eta *Ongietorri* leitmotiv moduan daraman Korrikaren egitarauaren baitan aurkeztu zuten *Anitzak Hitzak* ikuskizun berritzailea Durangon.

Bertsolaria euskaraz entzuten bai, baina hip-hopariak gure hizkuntzan aritzen entzutea ez da oraindik ere oso ohikoa. Zapatuko Platerueneko ekitaldian, baina, Xabier Silveiraren bertsoak zein hip-hop euskaraz izan ziren.

Korrikaren aurrerapena  
izan zen Plateruenean  
aurkeztu zutena

## MUSIKA&gt;

### Felix Aretxagari omenaldia egiteko kontzertua bihar

Arandoño kultur elkartearen sortzaile eta lehendakari izan zan Felix Aretxagari omenaldia egiteko elkarteak antolatu duen kontzertua da bihar aukeran izango duguna; joan zen urtean, azaroan hil zen Aretxaga oroitzeko antolatutakoa.

Mila Milikuak zuzenduko duen Durangoko Orfeoia eta Jose Luis Echechipia organo-jotzaile iruindarra arituko dira bihar, apirilaren 4an, 20:15ean hasita, Durangoko Andra Maria elizan. Organoarentzako piezak eta abesbatza eta organurako sortutako piezak tartekatuko dituzte, ordu beteko saioan.

Aita Madina, Gabriel Faure, Auguste Cherion, Felix Mendelsshon eta Jehan Alain konpositoreen lanak izango dira, besteak beste, entzungai.

Pantaila handi bat ipiniko dute altarean, ohikoa denez, kamera batek grabatutako musikari eta kantarien mugimendu guztiak emateko.

GEURE  
DURANGALDEA

Arantza Arrazola  
Programatzailea

### Publikoa= Ikusleak?

Ikuskizun eskaintza zabala dugu gure herri eta hirietan, eta batzuetan antzokietan ez da jendetza handirik biltzen. Akto-reak ezagunak direnean, baina, eta batez ere antzezlea telebistaren bidez ezaguna gertatzen zaigunean, bete egiten dira gure antzokiak; edo, pertsona ezagun horiek antzokiak bete egiten dizkigute.

### Antzezlea telebistaren bidez ezaguna denean bete egiten dira gure antzokiak

Aipatutakoak galdera batzuk sortzen dizkigu: zergatik betetzen dira gure antzokiak aktorea edo aktorea telebistako pertsonaia ezaguna denean? Telebistak eta aurpegi ezagunek antzerkirako ikusleak sortzen laguntzen dute?

Galdera hauek erantzun baino lehen, Harxulet hiztegi entziklopedikoak "ikusle" eta "publiko" hitzen artean egiten duen aldeari begirada bat botatzea interesgarritzat jo dut. *"Ikusle: zerbait, bereziki ikuskizun bat, ikusten duena edo ikusten ari dena"*. Publikoa, ordea, *"toki batean bildurik, ikusle edo entzule gisa batez ere, dagoen zaletasun bereko lagun-multzoa"* dela zehazten dute.

### Telebistak ezin du lortu zuzenean ikusteak edo entzuteak duen magia

Beraz, bigarren galderaren erantzuna argia da. Telebistak ikusleak sortzen ditu antzerkirako, baina ez publikorik. Lehen galderaren erantzuna, ordea, zailagoa da. Uste dut zerikusi estua duela gure sentimenduekin. Pentsatzen dut telebistaren bidez gure bizitzetan txertatuta ditugun pertsonaiak hurbiletik ikusteak xarma berezia sortzen digula.

Telebistak bere pertsonaiak guretzat hurbilagoak izatealortzen du. Izan ere, egunero edo gauero gure etxeko egongela, sukalde eta logelara sarturik gure bizitzako partaide bihurtzen zaizkigu. Baina telebistak inoiz ezingo du lortu zuzenean ikusi edo entzuteak duen magia. Ikusle eta antzezlearen arteko emozio eta sentimendu-sarea ehuntzeko ez dago antzerkia bezalakorik.



PINTURA> ELKARRIZKETA

*Zelan sortu da Nualanen erakusteko aukera? Aurretik be izan dozu erakusketaren bat egiteko aukerarik?*

Irailean Plateruen plazan dagoen Collins Irish Pub-ean egin neban erakusketa, nigaz ikasitako Saioa Agirregaz. Nualan, Goizane eta Aratz lagunek erakusketa izan ebelako eza-gutugenduen, eta eurek komentatu euskuen aukera hori.

*Tabernako iraileko erakusketan zer erakutsi zenduen?*

Saioa eta biok agertzen ginen argazki bat hartu genduen, eta bakotzak koadro bi egin zituen horren interpretaziotik.

“Txiki-txikitatik argi izan dot Arte Ederrak ikasiko nebala”

*Eta orain Nualanen ikusgai dagoen erakusketako koadroak zelan landu dozuz?*

Oraingoan ni bakarrik nago, eta argazkirik ez dot erabili. Gehiago izan da espresinoa bilatzea.

*Noiz egindakoak dira?*

Urria eta azaroan egindakoak dira, eta koadroetakoren bat erakusketa ipini baino lehen-txoago amaitutakoa be bai.

*Zer lan mota dira?*

Arte Ederrak ikasten nebile-nean gauza oso figuratiboak egiten nituen; loreetan, hostoetan eta gauza nahiko berdeen zentratzen nintzen. Karre-ra amaituta, nire etxean, figuratiboa apur bat alboratzen hasi nintzen: lientzo aurrean ipini eta ia zer ataratzen den. Orbanekin jolasten eta espresino barriak sortzen hasi nintzen: esperien-tzia barriak lantzen.

“Karrera amaitu nebanean itzi neban alde batera figurazinoa”

*Unibertsitatean ez zenduen bide hori jorratu?*

Han beste gauza batzuk egiten genduzen, nahiz eta irakasleek karrerako azken urteetan nahi-ko libre izten gintueen. Kostatu egin jatan gauza figuratiboak alde batera iztea.

*Arte Ederretan, zer ideiaz hasi zinen?*

Txiki-txikia nintzenetik oso argi izan neban Arte Ederrak ikasi gura nebala. Ikastolako pintu-rako irakasleak, Inesek esan eustan existitzen zela leku bat egunero margotzen jardun zeitekeena... Ordutik, 8-9 urte neukazanetik, helburu bakarra leku horretara ailegatzea izan dot. Klasean be egun guztia pinta-tzen emoten neban...

# “Koloreekin jolastuz, adierazpide barriak bilatzen ahalegintzen naz”

Apirilaren 20a arte Durangoko Santa Ana plazan dagoen Nualan dendan dagoz ikusgai **Hiart Zamakona** gazteak bertan erakusteko sortutako koadroak; sinpletasuna eta unean uneko sentsazioak koloreekin islatzea helburu hartuta osatutako lanak dira



I.E.

*Artearen irakaskuntzan diharduzu, baina, orain.*

Bai. Karreran be izan genduen pedagogia eta arte hezkuntza-ren didaktikari buruzko irakas-gai bat. Orain saiatzen nazena da hezkuntza munduko lana denpora librean pintatzeagaz konbinatzen.

*Eta konbinazino hori egin ahal izateko denporarik ateratzeko modurik izaten dozu?*

Gura dodan beste denpora ezin izaten dot atera. Ahal dodanean egoten naz pintatzen: lehen-goan be gaueko bederatzietatik hamaikak arte ibili nintzen pin-tatzen, ganbaran hotzak akaba-tzen. Ahal denean ataratzen dot denpora, terapia moduan be behar dodalako.

*Eta bi orduan koadro bat hasi eta amaitzen dozu?*

Denpora horretan, koadro bi hasi ahal dodaz edo lehenago hasitako bat amaitu ahal dot, baina koadro bat hasi eta ama-ituu egun berean ez dot sekula egi-ten. Askotan, egun batean hasi eta beste egun batzuetan be lantzen ditut koadroak: egun bakotxean desbardin ikusten dozuz gauzak.

*Zer material erabiltzea gustatzen jatzu?*

Akrilikoa erabiltzen dot, colla-geak be lantzen ditut, eta gau-za desbardinak probatzen ditut. Euskarriari jagokonez, zura, lientzoa, papera...

*Eta zer tamainako euskarriak erabiltzen dozuz?*

Tamaina handiko euskarriak gustatzen jataz, daukadazen txi-

“Tamaina handiko euskarriak erabiltzea dot gustukoen”

kienak Nualaen ikusgai dagoen koadro horreek dira. Espazio horretara moldatzeko beren beregi erabili dot tamaina hori.

*Oso koloretsuak dira Nualanen batu dozuzen lanak...*

Beti izan naz oso kolorista. Azken urteetan apurtxo bat alboratuta izan dot kolorea, egia esan, baina lan honetarako berreskuratu dot. ■ I.E.

Nualan gunean erakusten dituen koadroen sorre-ran udabarriaren ideia erabili ei eban buruan, bai-na azkenean “irudiak eskatzen eustanaren arabe-ra margoztutakoak dira”, azaltzen dau pintoreak. Puntu bat heltzen ei da, non hasierako ideia horrek baino indar handiagoa hartzen dauen irudiak berak: baloratzen dozuna irudia da. Egun batean sortutakoa hurrengoan aldatu edo desegiteak ez deutsala penarik emoten dino Hiartek, “beti kao-tika” samarra izan dela eta ohitua dagoela.

**Aldameneko mahaian**

Elkarrekin erakusketa egin eben Durangoko ins-titutuko Arte Batxilergoan eta Arte Ederren fakul-tatean ikaskide izan ziren Saioa Agirrek eta Hiart Zamakonak. Batak bestearen alboan pintatzen eban, eta bestearen lanaren balorazinoak egin. Elkarlanari eusteko Saioa Agirregaz erakusketa egingo dau maiatz eta ekainean Collins Irish Pub-ean. Ideia beretik bakotzak bere lana abiatuko dau, eta elkarrekin landu eta trukatzuz sortuko dabe.



PROGRAMAZIOA > AURKEZPENA

# San Agustin kulturguneak El Cigala dakar Durangora

Maiatzaren 30ean, Landakogunean izango da Diego "El Cigala" kantaria, *Dos Lagrimas* diskoa aurkezten; BBK-n salgai ipini dituzte jada sarrerak

Apirilaren 3an, gaur, 20:00etan, Bilboko Orkestra Sinfonikoa da San Agustin beteko duena. Xabier Calzada flautista izango da musikari nagusia, eta J. Ibert-en flauta eta orkestrarako konposizioek osatuko dute emanaldiaren oinarria; Beethoven eta Guridiren lanak ere eskainiko dituzte. Iker Sanchez arituko da zuzendari lanetan, 20:00etatik aurrera, San Agustin kulturguneak eta Bartolome Ertzila musika eskolak elkarlanean antolatu duten emanaldian.

Eguazten honetan Durango-ko Udalean izan dena, berriz, Udaleko ordezkaria eta San Agustineko kudeatzailearen eskutiko datoren hiruhilabeterako eskaintzaren berri-ematea izan da. Guztira, 13 ikuskizun profesional izango dira hiruhilekoan. Oraingoan, baina, apirileko programazioa azpimarratu du Arantza Arrazola kulturguneko kudeatzaileak.

BOSen gaurko  
emanaldia da  
hiruhileko lehena

Aste Santutik bueltan,  
umeei zuzendurikoa

Maiatzaren 30ean  
etorriko da "El Cigala"

Aste Santutik bueltan, apirilaren 19an, antzezleen artean Miren Larrea zornotzarra duen Anita Maravillas antzerki talde kataluniarra izango da, 18:00etan hasita, hurrei zuzendutako *Sarean Sun Sun* ikuskizunarekin. Maiatzaren 16an, bestalde, Federico Garcia Lorcaen testu batean oinarritutako Granadako Histrión taldearen antzerki klasikoaren moldaketa izango da, esaterako.

**Diego "El Cigala" Landakon**  
Aurkezpenean nabarmendu dutenez, San Agustin kulturguneak antolatuta, baina espazio kon-  
tuengatik Landakogunean, Diego "El Cigala" flamenko kantaria izango dugu maiatzaren 30ean, 22:00etan, Durangon. Iazko udan kaleratutako *Dos lagrimas* izeneko diskoko kantak aurkeztuko ditu madrildarrak Landakoguneko emanaldian. ■I.E.



Camaronen ondorengotzat aurkezten duten kantariak, *Dos Gardenias* edo *Historia de un amor* abestien bertsioak eskainiko ditu, besteak beste Landakon.

Bartolome Ertzila musika eskolako ikasleek *Aitonaren urtebetetzea* operaren moldaketa eskainiko dute, bestalde, ekainaren 5 eta 6an San Agustinen. ■I.E.

ANTZERKIA > EMANALDIA



## Agerre Teatroaren 'Putzuak lehortzen' lana Berrizen

Iazko martxoan estreinatu zutenetik Euskal Herriko hainbat eszenatoki izan dira Ramon eta Ramonaren maitasun istorioaren lekuko. Joan zen barikuan Berrizen izan zen *Putzuak lehortzen*.

Lau aktore baina pertsonaia bi; gaztaroko maitasunaren hasiera bizi duen bikote gaztea hezur-mamitzen duten antzezle bi, eta gizon eta emakume helduaren papera egiten duten beste bi izan ziren kultur etxeko emanaldian. Bikote harreman baten istorioa biltzen du *Putzuak Lehortzenek*.

Aktoreen elkarriketen tartean, gazte deneko Ramonaren papera egiten duen antzezleak zuzeneko musika jo eta kantatu egiten du antzezlanean. ■I.E.

Judit Fernandez

## PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



APIRILAK 3 22:00etan  
**AKATZ**  
Rudo Tour 2009  
KONTZERTUA. Sarrera: 7 euro.

APIRILAK 4 20:30ean  
**AURREZ AURRE**  
Maritzuli konpainia  
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

APIRILAK 5 19:30ean  
**VOLBEAT (DK) +**  
**POG MO THON**  
KONTZERTUA. Sarrera: 15-19 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



**Bilboko  
Orkestra  
Sinfonikoa**  
BOS (Bizkaia)

**KONTZERTUA**

Apirilak 3  
ostirala 20:00etan

San Agustin  
KULTUR  
GUNEAK  
DURANGOKO UDALA







# Inoiz ikusi gabeko deskontuak

Berriztatu zure sukaldea eta **3 fokoko indukzio plaka bat** oparituko dizugu



**%10eko deskontua • 20 hilabetetan ordainduta**

larunbatetan zabalik 10:30etik 13:30era • 20 hilabetetan ordaindu interesik gabe

\*Maiatzak 31arte, sukalde osoa erostean



**Viedsa** cocinas  

**FABRIKA** - Durango - Elorrio errep. ABADIÑO - 902 12 10 24 - [info@viedsa.com](mailto:info@viedsa.com) [www.viedsa.com](http://www.viedsa.com)



# Korrikaren lekukoa hartuko dau Durangaldeak bihar



Korrika

Bihar helduko da Korrika Durangaldera. AEK-k antolatzen dauen ekimen honek 16. edizinoa dau aurtengoa, eta kanpotik etorrita euskaldundu direnak eta euskara galdu ondoren berreskuratu dabenak omenduko ditu. Domekan amaituko da Gasteizen. Harako bidean gure eskualdea zeharkatuko dau.

**M**artxoaren 26an hasi zen 16. Korrika Tuteran. Euskal Herri osoan euskaltzaleak bere inguruan batu ondoren, domekan amaituko da Gasteizen. Oraindino, baina, baditu kilometro batzuk egiteko aurretik; horreetako batzuk Durangaldean. Urte birik behin ospatzen den ekimen honek parte-hartzaileen hauspoak indartuko ditu, eta euskararen hauspoa be bai: hori da, behintzat, helburua.

Bihar egingo deusagu Korrikari ongi etorria, beraz, Durangaldean. Hain zuzen be, horixe da aurtengo edizinoarentzat AEK-k (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) aukeratu dauen lema: *Ongi etorri*. Antolatzaileen arabera, Euskal Herrian ondo har-

**Euskal Herrira bizitzera etorri eta gero euskara ikasi eta zabaldu dabenak izango dira omenduak**

tu ohi doguz kanpotik herrira datozenak, eta, eredu horri jarraituz, era berean hartu gura ditue euskararen alde lan egin gura dabenak. Norbanako, erakunde eta administrazio guztiei “Korrikan azaleratuko den” gurariari kasu egiteko deia luzatu gura deusie AEK-k, “euskarak, Korrikak legez, pausoa arin eta gelditu barik egin behar daudelako aurrera”. Horretarako, baina, denon parte-hartzea derrigorrezkoa dela dinoe: “Korrikan legez, lekukoa lurrera jausi ez daiten, esku guztiak dira beharrezko”.

## Omenduak

16. edizino honetan omenduak izango direnak, hain zuzen be, lema edo mezuagaz lotura dau-

kie. Izan be, urteetan zehar hainbat eta hainbat izan dira Euskal Herrira bizitzera etorri direnak, eta horreetako askok euskara ikasi eta zabaldu dabe inguruko artean. AEK-ren ustez, “euskal herritarren ongi etorria ondo baino hobeto hartuz eta ulertuz, goraipatzeko moduko ekarpena egin deusie gure hizkuntzari”.

Omenaldi horretan, hainbat arrazoi tarteko euskara galdu eta berreskuratzeko ikasi daben guztiak be sartzen dira. Antolatzailerek “eskerrik zintzoena” helarazi gura deusie guztiei “omenaldi xume” horregaz.

## Durangaldea be korrika

Bihar arratsaldean sartuko da euskararen aldeko aldarria eskualdean. 17:00etan, puntu-puntu gauzak ondo badoaz, Zornotzara ailegatuko da Korrika. Bertan kilometro batzuk egin ondoren, Iurretarako norabidea hartuko dau, Arriandin 18:00ak izateko gitxi falta dela sartzeko. Gero Durango, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Berriz, Zaldibar eta Mallabitik igaroko

da; dagoeneko gaua denean itziko dau Durangaldea.

Aipatzekoa da eskualdean lekukoa hartuko daben elkarte edo erakundeen kopurua. Herriz herri, izaera askotako taldeek lagunduko dabe ibilbidean aurrera egiten; guztira, 80 elkartetik gora izango dira Korrikaren lekukoa eroaten Durangaldean.

Bestalde, ezin ahaztu Korrika Txikia be. Ekimen hori herrietako ikastetxeekin antolatzen da, eta haurrak izaten dira bertan protagonista. Gaur eguerdian ospatu dira Durangaldean Korrika berezi horreek: Durangon 15:00etan hasi da Kurutziagako iturrian, 800 umeren parte-hartzeagaz; Elorrian 300 ume izan

**Bihar arratsaldean sartuko da euskararen aldeko aldarria eskualdean**



dira; Abadiñon 430, Zelaieta eta Matienako eskolak batera zenbata; Berrizen 300 inguru; Zaldi-barren be hainbat egon dira eskola barruan. Azken honetan bihar aterako dira kalera berriro, Korrika etorri baino lehenago. Denera, Korrika Txikietan 2.000 haurrek parte hartu dabe, AEKren arabera.

Korrika Txikiak argi erakusten dau Korrika ekimen zabal eta parte-hartzaile dela. Horren beste adibide bat Korrika Kulturala da; ekitaldi ugari ospatu dira Durangaldeko hainbat herritan, aurrelanketa modura: kontzertuak, afariak, antzerkiak, ikuskizunak...

**Denera, Korrika Txikietan 2.000 haurrek parte hartu dabe, AEKko ordezkariak adierazi dabenez**

**Ekitaldi ugari antolatu dira herrietan aurrelanketa modura**

Badator Korrika, sentimenduak eta ahaleginak uztartuz. Entzun leitekeez jadanik jentearen aldarriak: "...ika, ika, ika, Korrika!", edo "...tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika!". Korrikalarien irribarreak eta izerdiek, biek ala biek, asko balioko dabe, 17. edizioaren beharra izango bada be. ■M.Onaindia

## Lau ordu Durangaldean zehar

Arratsaldeko 18:00etan Iurretako Bertso Eskolak hartuko dau lekukoa Arriandin, eta mallabitarrek agurtuko dabe Korrika Durangaldean, hiru ordu eta erdi geroago. Bitartean, milaka euskaltzalek egingo dau arineketan eskualdean. Elkarre ugari izango dira lekukoa eroaten: kirol taldeak, alderdi politikoak, gaztetxeak, eragile sozialak... Hemen daukazu biharko ibilbidearen barri.

### Ibilbidea

**Iurreta**, 17:58an Guardiatxun 18:17an Maspen  
**Durango**, 18:21ean zubian  
**Abadiño**, 18:57an Matienan 19:15ean Zelaietan  
**Atxondo**, 19:32an Artian  
**Elorrio**, 19:48an herri mugan 20:05ean bidegurutzean  
**Berriz**, 20:46an Gaztetxe parean  
**Zaldibar**, 21:06an sarreran  
**Mallabia**, 21:34an Areitian 21:44an frontoian



## Aldarrikapena bai, jaia be bai

Korrika zapatuan pasatzeak aukera handia emoten dau ekitaldiak prestatzeko; euskararen aldeko aldarrikapena izango da eskualdean, baina jai txikiak be antolatu ditue herrietan.

**-Iurreta:** 16:00etan ume eta gaztetxoentzako tailerrak. 19:00etan triki-poteoa.

**-Durango:** Eguerdian kale animazinoa Txiri-Txirigaz, luntxa 19:15ean, poteoa 20:00etan, 20:30ean dantza Plateruenean eta 22:30ean kontzertua Gaztetxean.

**-Abadiño:** 18:00etan dantza saioa Matienan.

**-Atxondo:** 14:30ean bazkaria eta ondoren antzerkia.

**-Elorrio:** Arratsaldean poteoa fanfarriagaz. Afaria, Alkartun.

**-Berriz:** 18:00etan Zirku Tipia. Gero poteoa. Gauen afaria Toki-Onan eta ondoren Anje Duhalderen emankizuna.

**-Zaldibar:** Arratsaldean umeentzako tailerrak eskoletan eta sagardao jaia plaza barrian.

**-Mallabia:** 11:30ean jokoak. 17:00etan umeentzako zinea. 18:00etatik aurrera dantza ikas-taroa. Gauen afaria eta dantza.



## “Kolore askotakoa izango da Durangaldea zapatuan”

Korrikaren Durangaldeko koordinatzailea da Aitzol Gastañazatorre durangarra. Zortzi urte daroaz ardura horretan; aurten be parte-hartze handia itxaroten dau.

**Badator Korrika Durangaldera. Zelan doaz azken prestaketak?**

Zapaturako dena prest egotea itxaroten dogu: lekuko aldatetako lotuta, markadoreak jarrita eta ahal den heinean herriak be zelanbait txukunduta, Korrikari merezi dauen harrera egiteko. Antolatutako egitarauak herrietako elkarrekin lotzen gabilz; helburua herrietan euskararen aldeko jaitxoak antolatzea da, domekan Gasteizera joan behar dogula ahaztu barik, jakina.

**Noiztik zabilz zu Korrikaren antolaketan?**

12. Korrikan hasi nintzen, eta ordutik era batean edo bestean prestaketa lanetan jardun izan dot. AEKn dihardugun guztiok modu bateko edo besteko eran-

tzukizuna hartzen dogu Korrika datorrenean. Ni, azken urteetan, Durangaldean Korrika koordinatzen ibili naz gehienbat.

**Anekdotarik izango dozu kontatzeko. Gertaera bitxiren bat...**

Beti dago despistaturen bat garai honetako ordutegi aldatetaz. Bitxikeri moduan, Abadiñon Eusko Label-ek piperrak, oilaskoak, behiak... ateratzen ditu Korrika egitera. Urte batean kamioilariak be Korrikagaz bat egin eta kamioiekin egin zitueen hainbat kilometro eskualdean.

**Aurten zapatuan pasatuko da hemendik. Jente askok parte hartzea itxarongo dozue...**

Bai, esperantza hori daukagu; batez be, zenbat elkarrekin parte

hartuko dauen ikusita. Ikustekoa da zenbat jente mogitzen eta mogiarazten dauen Korrikak. Kolore askotako Durangaldea izango da zapatuan. Ia denok ondo pasatzen dogun!

**‘Ongi etorri’ da aurtengo lema.**

Uste dot aurtengo lema apropos dela euskara ikasi eta erabiltzera animatzeko, bertakoa zein kanpotik etorritakoa izan. Eskualdean be, euskaltegietara zein berbalagun moduko jardueretara ongi etorriak izango dira euskararen mundura hurbildu gura daben guztiak. Zapatilak, botak zein abarkak, txandala, prakak zein gonak, txapela zein zapia, peto berde, gorri, urdin zein laranja jantzita... goazen denok Korrika!

ERITZIA<sup>></sup>

## Gutunak



## Mila esker, Esti

Oraindik gogoratzen dot Durangoko taberna baten eduki genduen solasalditxo. Han ibili ginen politika gora eta behera, eta azkenean konbentzitu zintudan, Durangoko udal hauteskundeetarako zerrendan bigarren etor zeintzen. Komentatzen neutsun, niretzako independenteek zelako garrantzia daukien, eta, horregaitik, hainbat erakarri nahi genduzela.

Azkenean, zuk onartu zenduen, esanez, irtenez gero ez zeneduela kargua hartuko. Nik, sasoi haretan ez neban pentsatzen egoera honetan izango ginenik.

Baina, horrela izan zen, eta bi eserleku lortu beharrean ia hiru zinegotzi atera genduzen. Hor hasi ziren komeriak; ez zeneduela zure burua Udaletxe barruan ikusten, lasai-lasai bizi zinela, politikatik urrun hainbat borrokatan egon ondoren.....

Halan be, nik ez neban etsi, guztiz beharrezkoa delako zu lako jentea udal politikan egotea. Politikak dakarren joko eta burokraziaz haratago, erakundeetara herritar xumeen ahotsa helarazteko gai diren pertsonak. Konbentzitu zintudan, bai, baina sekula ez zara gustura ibili, "etxe handiaren" barruan dagoen "geldokrazia" ez zeneduelako ulertzen. Dena dela, niretzat behintzat, zure egonezina guztiz beharrezkoa izan da, bertan gagozen hainbat teknokraton aurrean herritarren eguneroko aldarrikapenei berebiziko garrantzia eta lehentasuna eman behar jakela aldarrikatzeko.

Horrez gainera, oso garrantzitsua den ideia bat barneratzen lagundu deustazu: gure ametsetako Euskal Errepublikak Ekosozialista lortzeko asmoz, beste garapen edo eredu ekonomiko alternatibo bat aldarrikatu behar dela, baina euskararik barik ez dagoela Euskal Herriak. Ziur izan, nagoen tokian nagoela, ez dodala hori sekula ahaztuko.

Azkenik, espero dot zinegotzi izateko hartutako erabakiagaz ez zinela damutuko. Niri pertsona eredugarri bat ezagutzeko aukera emon deust. Gainera, uste dot Durangok badaukala zuri zereskertu, guk geuk udal-talde legez asko zor deusugun moduan. Dena dela, berba ponposoak alde batera itzita, badakigu gure zorra modu baten bakarrik kendu geinkela: zuk erakutsitako bidetik Durangoren alde lan eginez.

Daniel Maeztu (Durango)

## Frankismoaren aurka, oroimena, duintasuna eta borroka

Asteartean, horda faxistek Durango bonbardatu zutela 72 urte bete dira. Horretarako, 15 tona bomba erabili eta 336 pertsona hil zituzten. 72 urte pasa dira, Emilio Mola jeneral kolpistak bere mehatxua bete zuela; alegia, bizkaitarrak aske izateko borrokan tematzen baziren, lurralde osoa suntsituko zuela.

Denbora pasa da, baina garaileak, euren oinordekoak eta egungo konplizeek, ahanztura eta historiaren manipulazioarekin jarraitzen dute. Batzuek Oroimen Historikoarekiko borroka gorpuak hobi komunetatik atera eta desagertuak identifikatzera mugatu nahi ko lukete. Beste batzuek ezta hori ere. Ezin dugu ahaztu Gerra Zibilean frankistak gailendu ondoren, 40 urte iraun zuen diktadura bat inposatu zela. Erregimen honen egunerokotasuna: komunista, sindikalista, anarkista, errepublika zale, abertzale edo orobat demokrata usaia zuen oro jazartzea izan zen.

Berrogei urte hauetan batze, biltze eta adierazpen askatasunak euren adiera guztietan debekatuak izan ziren. Debeku hauen aurka jardun zutenak zigortuak, atxilotuak, torturatuak eta gar-

tzelaratuak izan ziren. Sindikatu Verticalarekin oroitu baino ez dugu, ugazabei langileen ustiakuntza ahalbideratzen ziena. Tribunal de Orden Público deiturikoa ere ospetsu egin zen, bertatik milaka pertsona pasa baitziren. Ezin ahantzi Dirección General de Seguridad erakundea, zeinak komisaldegia eta kasernatxo frankorekin batera, zigorgabetasun osoko eremu ilunak eratu zituen. Hauetaz landa, populazioa erreprimitzeko sortu ziren indar eta erakunde armatuak ere oroitzapen latza utzi zuten.

Faxismoak hil zituen pertsonen oroimena ez da soilik loreekin eta adierazpen hutsalekin gorpuzten. Adierazpen hauek kontzientzia hutsak elikatu eta txarrak zuritzeko baino ez dute balio. Azken helburua historia faltsuki gainditzea baino ez da. Baina zauriak ezin dira itxi biktima eta borrarroak maila berean jarritz, eta Franco eta bere kideen erantzukizunak ahaztu eta estaliz.

Estatu espainolean barrena, ase arte torturatu, zapaldu eta jendea erail egin zuten asko juzkatuak ere ez dira izan. Aitzitik, beste batzuk egin ez zituzten delitu batzuen errudun izaten jarraitzen dute. Guk oroimen historiko antifaxista baten alde egiten dugu. Egia bilatuko duena eta behingoz justizia egiten saiatuko dena. Ozen entzun nahi dugu kapitalistak izan zirela Francoren eta bere inguruko jarduna sustatu zutenak. Bankariek, industrialek eta finantzariak eman zioten Francoren diktadurari babesa. Hauek berauek, frankismoa baliogabetu zenean, demokrazia faltsu baterako igarobidea planifikatu eta Juan Carlos de Borbon koroatu zuten.

Gaur egun, Estatuko bitarteko guztien laguntzarekin oraindik, faxismoak inpuniate osoarekin jarduten du. Faxismoaren atzo eta gaurko biktima guztiak oroitzuz, Durangok ez du ahazten ez eta barikatzen ere.

Durangoko Sare Antifaxista

## AHTaren aurka aurpegia eman

AHT Gelditu! Elkarlanak datozen asteetan *Nik ere AHT geldituko dut!* lemapean *AHTren aurka, aurpegia eman!* kanpaina burutuko du, AHTa gelditzeko bidean norbanakoen eta kolektiboen atxikimenduak eta konpromisoak jasotzeko.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako ekimen ugarien aurrean, AHTaren sustatzaileen erantzuna iruzurra eta oldarkeria areagotzea da. Kanpaina honekin, AHTaren aurka aurpegia eman nahi dugunak asko garela erakutsiko diegu.

Datozen asteotan, AHTa gelditzeko konpromisoa duten pertsonen argazkiak jasoko ditugu mugimendu sozialaren aniztasuna ikustarazteko; auzo, herri eta hirietan egingo diren hainbat ekimenen bidez edo [www.nikereahtgelditukodut.org](http://www.nikereahtgelditukodut.org) webgunera argazkiak bidaliz.

Larunbat honetan herri hauetan egongo gara, argazki pilo bat ateratzeko prest: Zornotzan 12:00etatik 14:30era Patatan, Durangon 19:00etatik aurrera Andra Marin, Abadiñon arratsaldean Plazan, Atxondon egun guztian Plazan eta Elorrion arratsaldean Plazan.

Beraz, gizarteko sektore guztiei deialdia zabaldu nahi diegu inposizioaren eta zentzugabekeriaren aurka aurpegia eman dezaaten.

Durungaldeko AHT Gelditu! Elkarlana

**Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
**Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**  
**zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

Taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

## kolaborazinoa



Endika Blanco

## Unezkor

Heltzear dagoen oporraldian zer egin pentsatzen ariko zara, agian. Nik, urrutira joan gabe ere, erromatar bilakatzeraino bidaia luzean jarraitu behar dut, latina ikasteko asmoz; ekainean, Zesarren testuek jan nazaten nahi ez badut behintzat.

Aitzitik, badut aipaturiko bidaia nahi bezain gustura egiten uzten ez didan kezka bat; euskararen etorkizun iluna, alegia.

Beharbada, korrika eta korrika dihardugun bolada honetan batik bat, gazte ezkor bat baino ez naizela irudituko zaizu.

Baina Gasteizen bizitzeak, batetik, iparraldeko lagunek beren herrietako egoera gordinaren berri emateak, bestetik, eta Unescok arriskuan diren munduko hizkuntzen atasean gure ama hizkuntza barneratzeari, azkenik, iluntzat nuena beltz bilakatu dute.

Gaur egun Euskal Herrian indarrean dauden menpeko hizkuntza-politikek, hiri eta herrietako komunikatzeko oinarritzko tresna izan behar lukeen euskara, kultur etxe eta antzokietako apaingarri legez azpiratua izan eta desagertzera kondenatzen dute pixkanaka.

Bizi osoa euskarari eskaini ostean, tamalez, iaz hil zen Gotzon Garate jesuita jakintsu elgoibartarrak ere "luzaroan Euskal Herriaren independentziarik gabe euskara galdu egingo dela uste zuen, "ez delako beharrezkoa izango".

Esandakoak esanda, gaur zortzi hasita Amaiurretik Garazira egingo den Gazte Martxan independentziaren bidean pauso bat gehiago emateak duen garrantziaz ohartu naiz; ez baitiet gure ondorengoei nik latinarekin egin behar dudana bezalako xarma gutxiko bidaia intimorik euskararekin opa.



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



**anboto**  
durungaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak  
2009ko apirilaren 3a - 8. urtea - 325 zk.

## Laguntzailea:



## Eta honako Udal guztiak:

|         |         |          |
|---------|---------|----------|
| Abadiño | Elorrio | Mallabia |
| Atxondo | Garai   | Mañaria  |
| Berriz  | Iurreta | Otxandio |
| Durango | Izurtza | Zaldibar |

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

## Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

## Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

## Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

## Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

## Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



# Gremioen gida



## Altzarien Zaharberritzea

### Txingoka Zaharbarrikuntza

«Sitsaren tratamendua»

Altzariak eta zurezko osagai arkitektonikoak zaharberritzen ditugu

Tel.: 659 746 499 • Zornotza

## Elektronika

### URBASA Elektronikak

SALMONTA ETA KONPONKETA • TB • SORBUA • BIDEUA • BURATIA • KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITE BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13  
Tel.: 94 681 33 03  
Durango

**Panasonic**

Telebés  
Instalazioak  
Ofizialak

## Iturgintza



Klimatizazioa  
Kalefazioa  
Iturgintza  
Gasa

Artandi, 18 - beheko 3. solairua  
Sakelekoa: 607 24 58 54  
Faxa: 94 681 61 58  
Iurretza

Baimendun  
Instalatuzailea

## Argiztapena

### MARKIEGI

Plateruen plaza 4, beheko  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com



## Gas

### CIAL-UME

gas-likidoen banaketa-etxea, s.l.

GAS INSTALAZIOAK  
ETXE OFIZIALA

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurretza, 7 - IURRETA Komentu leku, 2-A - DURANGO  
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 02 50

## Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurretza • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com



K21

## Lorazaintza



Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inaüsketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

## Eraikuntza

**arlax**  
ERAIKUNTZA  
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak  
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70  
DURANGO 605 77 03 57

**Iturgintza**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SAlMONTA ETA EZARPENA

## Barne Dekorazioa

**a-metz**  
(barne)diseinua

Diseinua  
Dekorazioa  
Idazketa  
Proiektuak - 3D  
legalizazioak  
Enbalmak  
Gremioen  
koordinazioa  
Obrak barrik  
Altzariak  
Olagarriak

Barrio, 34 beheko, 10  
48200 Durango/ Euzkadi  
T. 94 681 84 81  
F. 94 681 84 91  
M. 659 267 373

www.a-metz.com

## HEMEN AGERTU

GURA BADOZU  
DEITU

94 621 79 02

**Ubide**  
iturgintza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



## AGENDA&gt;

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 4an, 20:00etan

## ALDAKETA AZTERGAI

Aldatzeko aukeraz, esperientzia barriak partekatzearen garrantziaz, eta bizitzaren zenbait unetan etorkizun hobeaz lortzeko aldaketak egitearen komenigarritasunaz hausnartzeko bidean jarriko ditu Zornotza Aretora hurreratuko direnak La Galera Encantada konpainia argentinarrak. Familian ikusteko 'La arena y el agua' obragaz jatoriku 1978an sortu zenetik makina bat sari eta aintzatespen jaso dituen antzerki taldea.

## apirileko agenda

## Apirilak 4

• Iurreta-Txirindulari Elkartea-Ibilbidea (90 km.)  
09:00 Iurreta-Zeanuri-Barazar-Legutio-Otxandio-Zubizabal-Barazar-Iurreta  
• KORRIKA EGUNA IURRETAN  
16:00 Umeentzako eskulanak Amilburun  
18:00 **Korrika 16** Iurretara heldu. Ostean triki-poteoa, tortilla eta txistorra.

## Apirilak 5

• Iurreta-Txirindulari Elkartea-Ibilbidea (85 km.)  
09:00 Iurreta-Montekalbo-Galarregi-Munitibar-Lekeitio-Muruetagan-Gernika-Autzagana-Iurreta  
• Kultur bidaia Karrantzako Pozalaguara (Mikel Deuna K.E.)  
09:00 Irteera Andaparapen / 19:00 Itzulera Karrantzan  
Izen ematea eta txartelak Apirilaren 3rte Ibaiondo kafetegian.

## Apirilak 9-10-11-12-13

• Iurreta-Txirindulari Elkartea-Ibilbidea (80-90 km.)  
09:00 Iurreta-Montekalbo-Galarregi-Munitibar-Lekeitio-Muruetagan-Gernika-Autzagana-Iurreta  
09:00 Iurreta-Lemoa-Sarasola-Ugao-Orozko-Bikoxgana-Artea-Iurreta  
09:00 Iurreta-Parke Tekn.-Loiu-Unbe-Plentzia-Andraka-Mungia-Gerekiz-Muniketa-Iurreta  
09:00 Iurreta-Areitio-Bergara-Deskarga-Legazpi-Udana-Onati-Kanpazar-Iurreta  
09:00 Iurreta-Autzagana-Muxika-Muxika-Gerekiz-Soietxe-Maruri-Gatika-Lauro-Parke Tekn.-Iurreta

## IURRETAKO UDALA

## ANTZERKIA

## BERRIZ

» 'Ametsen museoa' (Eidabe),  
apirilaren 3an,  
17:30ean,  
Kultur Etxean.



## ZORNOTZA

» 'La arena y el agua' (La Galera Encantada), apirilaren 4an,  
20:00etan, Zornotza Aretuan.

## BERBALDIA

## ELORRIO

» 'Industrias movilizadas y fabricación de armamento en Durangaldea durante la Guerra Civil' (Asier Perez de Eulate),  
apirilaren 3an, 19:30ean, Iturrin.  
Martxoak 31 dela-eta.

## BESTEAK

## IURRETA

» Pozalaguara (Karrantza) kultur bidaia,  
apirilaren 5ean, Mikel Deuna kultur elkarteak eratuta.  
Irteera, 09:00etan, Andaparapen.  
Izena emateko azken eguna apirilaren 3a, Ibai-Ondo kafetegian (bazkaria barne, 30 euro iurreta-koentzat; besteentzat 36 euro).



## DANTZA

## DURANGO

» Dantza tailerra: Dantzaldi ibiltaria (Aiko), apirilaren 7an, 19:30ean, Plateruenean.

## ERMUA

» Txindurri Eguna: Euskal Dantzak Jainaga eta Narbaizaren taldea-gaz, apirilaren 4an, 18:30ean, Orbe Kardinalaren plazan. Txindurri taldeak antolatuta. Apirilaren 5ean, Txindurri taldea.

## DEIAK

## DURANGALDEA

» Aisialdirako eskaintza kaleratu dau Ikastolen Elkarteak. Horren

aurrean begiraleak be behar ditue. Horretan jardun gura dabenek gazteek apirilaren 5a arte daukie izena emotea. Euskalduna eta aisialdian esperientzia daukana izatea beharrezkoa da. Baita ingelesa menperatzea be, ingeles udalekuen kasuan. Kontuan hartuko dira: aisialdiko begirale/zuzendari titulua edukitzea, sorosle, elikagaietan aditua izatea eta abarren titulua izatea eta formazinoa zein gaitasun pertsonalak ([www.biekastola.net](http://www.biekastola.net) / [www.ikastola.net](http://www.ikastola.net))

## DURANGO

» Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

## IURRETA

» Udaleku finkoa eta ibiltaria eratu ditu Kimuak elkarteak. Uztailean. Izena emateko Ibarretxe kultur etxean ([www.kimuak-elkartea.com](http://www.kimuak-elkartea.com) / [kimuak@kimuak-elkartea.com](mailto:kimuak@kimuak-elkartea.com)).

## ERAKUSKETA

## DURANGO

» Hiart Zamakona. Margoak.  
Apirilaren 20a arte, Nualan Gunean.

## ELORRIO

» Durangaldeko Gerra Zibilaren inguruko erakusketa (argazkiak, Intxortako frontearen maketa...). Apirilaren 6a bitartean, Iturri kultur etxean. Martxoak 31 dela-eta zabalduko erakusketa.

## IKASTAROAK

## ABADIÑO

» Aitei zuzendutako afektibitate eta haurrendako masaje ikastaroa, apirilaren 30etik maiatzaren 28ra. Apirilaren 3a da izena emateko azken eguna: Txanporta eta Errotan (94 466 94 20 / [berdintasun@abadiano.org](mailto:berdintasun@abadiano.org))

## DURANGO

» Aisa-etorkinendako euskara ikastaroak, apirilaren 21etik ekainaren 25era. Gitxienez 12 eta gehienez 18 lagunekin taldea osatu behar da. Izena emateko azken eguna apirilaren 17a da, Udaleko Euskara Sailean (94 603 00 30 / [www.durango-udala.net](http://www.durango-udala.net)).

» Makrobiotika eta osasunerako sukaldaritza. Apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an.

Tina Asensioren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eratutako eskolak, Kurutzia ikastolan. Izena emateko eta informazio gehiagorako Artakuso ekodendara jo leiteke edo honako telefonora deitu: 659 990 740 (Oihana).

## IURRETA

» Jabekuntza ikastaroetan izena emateko epea zabalik. Apirilaren 7a arte, 09:00etatik 13:30era, Gizarte Ongizate Sailean: **Barrete-rapia** apirilaren 20 eta 27an, eta, maiatzaren 4 eta 11n, 17:00etatik 20:00etara; **Gatazken konponbidea** apirilaren 23 eta 30ean, maiatzaren 7, 14, 21 eta 28an, eta, ekainaren 4an, 17:00etatik 18:30era. Ibarretxe kultur etxean.

## IPUINAK

## ERMUA

» Umeendako ipuin-kontalaria: **Ixabel Agirresarobe**, apirilaren 4an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

## IURRETA

» Umeendako ipuin-kontalaria: **Alaitz Muro**, apirilaren 3an, Ibarretxe kultur etxean: 17:30ean (3-4urte) eta 18:00etan (bost urtetik gora). Nazinoarteko Haur Liburuaren Eguna dela-eta.

## KORRIKA16

## ATXONDO

» **Bazkaria**, apirilaren 4an, 14:30ean, frontoian. Ondoren, **antzerkia**.

## BERRIZ

» **Giriguay (Zirku Tipia)**, apirilaren 4an, 18:00etan. **Afaria** Toki-Onan, eta ondoren Anje Duhalde.

## DURANGO

» **Korrikaren testigua eroango dabenen argazkia**, apirilaren 4an, 17:00etan, Andra Marin. **Luntxa, sagardoa, txokolatea, argazki emanaldia, bertsolariak...** 19:15ean. **Korrika triki-poteoa**, 20:00etan, Alde Zaharrean.

» **'Aurrez aurre' (Maritzuli konpainia)**, apirilaren 4an, 20:30ean, Plateruenean.

» **Kontzertua**, apirilaren 4an, 22:00etan, Sapuetxe gaztetxean

## ERMUA

» **Xilipurdi**, apirilaren 3an, 16:00etan, Orbe Kardinala plazan. **Bertso-triki-poteoa**, Herga tabernan, 19:30ean.

## BERRIZKO UDALA APIRILA

## Apirilak 3

Haur antzerkia: Ametsen museoa. Kultur Etxean 17:30ean.

## Apirilak 4

Korrika Berriztik 20:45etan. Aurretik, 18:00etan Zirku Ttipiaren ikuskizuna: Giriguay. Ostean, afari herrikoia eta Anje Duhalderen kantaldia.

## Apirilak 8

Ohiko udal-bilkura. Udaletxean 19:00tan.

## Apirilak 22

Ahozkotasunaren Jaialdia 19:30ean Kultur Etxean. Libano eta Kolonia.

## Apirilak 24

Antzerkia: Ezker-eskuma. Kultur Etxean 22:00tan.

## Apirilak 25

X. Kaleko Pintura Lehiaketa.

## BESTELAKOAK

• **Martxoaren 23tik apirilaren 8ra** Rosa Etxabe Barruetabeñaren margo erakusketa  
Astelenetik ostiralera 18:30 - 20:30.

• **Apirilaren 25etik maiatzaren 15era** Margo Lehiaketaren erakusketa  
Astelenetik ostiralera 18:30 - 20:30.

• **Apirilaren 15etik ekainaren 17ra** Sexualitatea heldutasunean. Kultur Etxean. 17:00 - 19:00. Eguaztenetan.

• **Apirilaren 23tik uztailaren 26ra** "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina





» **Ermua kantuan**, apirilaren 4an, 12:30ean, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda. Aurretik, 11:30ean, **umeendako jolasak** Kulki taldeagaz. **Bazkaria**, 14:30ean.

» **Orkestra taldeagaz kalejira**, apirilaren 4an, 12:30ean, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda.

» **Larraidantza**, apirilaren 4an, 20:00etan, Orbe Kardinalaren plazan.

IURRETA

» **‘Bidaia intimoak’ (Jon Maia)**, apirilaren 3an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

» **Umeendako eskulanak**, apirilaren 4an, 16:00etan, Amilburun. Korrika igaro ondoren, **triki-poteoa (tortilla eta txistorra pintxoak be bai)**.

MALLABIA

» **Umeendako tailerrak**, apirilaren 3an, 16:00etan, plazan. **‘Zorionak zuri...’ (Zirika Zirkus)** ikuskizuna, 17:00etan.

» **Futbolagaz lotutako jokoak**, apirilaren 4an, 11:30ean, eskolako frontoian. **Umeendako zinea**, 17:00etan, Kultur Etxean. **Dantza ikastaroa**, 18:00etatik 21:00etara, plazan. Gauean **afari gestionatua** eta **dantzaldia**.

LEHIAKETA

ABADIÑO

» **Sanprudentzioak iragartzeko kartel lehiaketa**. Lanak apirilaren 14ko 20:30ak baino lehen aurkeztu behar dira, Txanporta edo Errota kultur etxeetan, Udaletxean edo Traña-Matienako Udal Bulegoan. Saria: 500 euro. Herriko onenari 250 euro eta 16 urtetetik beherako onenari argazki kamera digitala (94 620 36 47 / 94466 94 16 / [txanporta@abadiano.org](mailto:txanporta@abadiano.org) / [errota@abadiano.org](mailto:errota@abadiano.org)).

» **Santrokazak iragartzeko kartel lehiaketa**. Azken eguna apirilaren 17a, Txanporta edo Errota kultur etxeetan, Udaletxean edo Traña-

Matienako Udal Bulegoan. Saria: 600 euro. Herriko onenari 350 euro (94 620 36 47 / 94466 94 16 / [txanporta@abadiano.org](mailto:txanporta@abadiano.org) / [errota@abadiano.org](mailto:errota@abadiano.org)).

DURANGO

» **Kontakizun laburren lehiaketa**. +Dendak elkarteak eratuta. Gehienez, hiru orrialde bete leitekez, euskaraz zein gazteleraz. Sail bi sortu ditue: 18 urte artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Sariak: 10 eta 200 euro arteko erosketa-baleak. Azken eguna apirilaren 24a.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18:30etik 20:30era, Liburutegian. Aurretik eskatuz gero

haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe (94 681 27 26 / [biblioteka@iurreta.net](mailto:biblioteka@iurreta.net)).

MUSIKA

DURANGO

» **Bilbao Orkestra Sinfonikoa**, apirilaren 3an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

» **Akatz**, apirilaren 3an, 22:00etan, Plateruenean.



» **Volbeat (DK) + Pog Mo Thon**, apirilaren 5ean, 19:30ean, Plateruenean.



Apirilaren 3an, 20:00etan

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA SAN AGUSTINEN

Durangon izango da berriro Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS). San Agustin kulturguneko oholiza gainean, J. Ibert-ek flauta eta orkestrarako sortutako kontzertua eskainiko dau BOSeK, eta Xavier Calzada izango da musikari nagusi, aditu askok etorkizuneko euskal musikagintzaren promesa sendotzat daukien flautista gaztea. Iker Sánchezen eskutik eskainitako errepertorioa osatzeko, Guridi eta Beethovenen lanak be eskainiko ditue.

ELORRIO

» **Euskal Zarata Tour09: Ymotek + Titadine + Legacy of Cain+ A:D + Justa Venganza + Requien for Belial + Fuego de Cobertura + State Murders**, apirilaren 4an, 21:00etan, Gaztetxean.

ERMUA

» **Jose Luis Pardo & The Mojo Workers (bluesa)**, apirilaren 4an, 20:00etan, Lobiano kulturgunean.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Umeendako zinema**, apirilaren 5ean, 17:00etan, Kultur Etxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza  
**Slumdog millionaire**  
Zuzendaria: Danny Boyle  
barikua 3: 22:00  
zapatua 4: 22:30  
domeka 5: 19:30 / 22:30  
astelehena 6: 19:00 / 22:00  
martitzena 7: 20:00  
**Pesadilla antes de navidad (3D)**  
Zuzendaria: Henry Selick  
barikua 3: 22:00  
zapatua 4: 19:30

Umeendako zinema  
**Bolt (3D)**  
zapatua 4: 17:00  
domeka 5: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia  
**El curioso caso de Benjamin Button**  
Zuzendaria: David Fincher  
zapatua 4: 22:30  
domeka 5: 20:00  
astelehena 6: 20:00

Umeendako zinema  
**City of Ember**  
domeka 5: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa  
**El luchador**  
Zuzendaria: Darren Aronofsky  
domeka 5: 20:00  
astelehena 6: 20:00

Umeendako zinema  
**Winkyren zaldia**  
domeka 5: 17:30

BOTIKAK

**Barikua, 3**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)  
**Zapatua, 4**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)  
09:00-13:30 (\*14:00)  
• Navarro / De Diego / Unamunzaga / Sagastizabal / Campillo / San Roma / (Durango)  
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)\*  
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)\*  
09:00-22:00  
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)  
**Domeka, 5**  
09:00-09:00  
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)  
**Astelehena, 6**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)  
09:00-22:00  
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)  
**Martitzena, 7**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24- Durango)  
**Eguaztena, 8**  
09:00-09:00  
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)  
**Eguena, 9**  
09:00-09:00  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
09:00-22:00  
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

TELEFONO INTERESGARRIAK

**SOS Deiak.....112**  
**DYA .....94 620 28 00**  
**Gurutze Gorria ....94 681 09 49**  
**Osakidetza .....94 600 72 00**  
**Ertzaintza .....94 466 93 00**  
**Suhiltzaileak .....112**  
**GARRAIOAK**  
Euskotren.....902 54 32 10  
Durango .....94 681 02 32  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto ....945 286 466  
**TAXIAK**  
Abadiño .....946 814 470  
Matiena .....606 459 988  
Durango Geltokia.....946 811 001  
Goco Tour .....946 202 860  
Tele Taxi .....944 102 121  
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026  
Elorrio Geltokia .....946 820 040  
J.L. Uriarte ..670 402 002  
I. Estebez ....670 678 273  
M Galeano.....946 582 854  
Iurreta .....946 201 565

**UDALAK**  
Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz .....94 682 45 84  
Durango .....94 603 00 00  
Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16  
**UDALTZAINGOA**  
Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz .....94 682 40 36  
Durango .....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88  
**BESTELAKOAK**  
Arriola .....94 658 31 92  
San Agustin .....94 603 00 21  
Zornotza Aretoa ....94 630 01 68  
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE .....94 620 36 47  
Errota KE .....94 466 94 16  
Gorabide .....94 681 24 35  
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51  
Nekazal bulegoa ....94 681 15 20  
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86  
Butanoa (UME).....94 681 08 77  
Araztegia .....94 620 28 00  
Foru Ogasuna.....94 681 07 42  
INEM Durango .....94 681 12 96  
Gizarte Segurantz 94 681 49 58  
Epaitegiak.....94 603 00 51  
**KIROLDEGIAK**  
Igerilekua  
Astola .....94 620 29 29  
Igerilekua  
Atxondo .....94 623 14 38  
Berriz .....94 682 43 74  
Durango  
(Landako).....94 621 51 30  
Durango  
(Tabira) .....94 621 51 50  
Elorrio .....94 682 10 27  
Zaldibar .....94 682 73 74

EGURALDIA

**6 11° BARIKUA**  
Tarteka estali samar eta goizaldean zeozer busti egin leiken arren, oro har, ostarteak zabalduko dira. Ipar haizea ahultzeaz gainera, tenperatura gorago joango da, giroak gozatze aldera eginez.  
**8 19° ZAPATUA**  
Giro hezea itxaroten dogu. Fronte batek lurraldea zeharkatu eta euria itziko dau. Halan be, ez dau askorik botako eta atertuz joango da. Hego haizeak ipar-mendebaldera egingo dau arratsaldean.  
**12 19° DOMEKA**  
**11 25° ASTELEHENA**  
**4 12° MARTITZENA**





[www.korrika.org](http://www.korrika.org)  
**badator!**  
 durangaldera apirilaren 4an  
 iurretatik - mallabiara

|          |          |
|----------|----------|
| IURRETA  | 17:58:07 |
| DURANGO  | 18:21:31 |
| ABADIÑO  | 18:57:35 |
| ATXONDO  | 19:32:22 |
| ELORRIO  | 19:48:37 |
| BERRIZ   | 20:39:59 |
| ZALDIBAR | 21:06:26 |
| MALLABIA | 21:34:23 |



# KIROLAK >



Legarra

## 32 txapel, bata bestearen atzetik

**A**badioño Sokatira Taldeak goma gaineko erregetzari eutsi dio aurtan ere. Jokoa izandako lau pisuetan txapela jantzi du, zortzigarren urtez jarraian. 32 txapel irabazi ditu, bata bestearen segidan. Euskal Herriko final bat bera ere ez dute galdu goma gainean, 2002az geroztik. Arin esaten da.

Joan zen asteburuan, 560 kilora arteko hirugarren eta azken

jardunaldia jokatu zen Elizondon. Abadiño bigarren geratu zen, Berriozarren atzetik. Baina Edu Mendizabalen mutilek lehen jardunaldian abantaila polita aterea zuten, eta Elizondon batutako puntuak aski izan ziren txapela Abadiñora ekartzeko. Bigarren eta hirugarren Berriozar eta Amaur sailkatu ziren.

Mendizabalek errespetu handia zion pisurik txikieneri, aur-

kariak gertuen izaten dituzten tartea delako, eta txapelketak arrazoi eman zion. Latz sufritu zuten, baina saria ez zen nolanahikoa.

Denboraldiko lehenengo bi txapelketak (640 eta 680koa) jardunaldi bakarrera jokatu ziren, eta Abadiñoko talde nagusiak ez zuen areriorik izan; ez Abadiñon bertan ez Oiartzunen jokaturako finaleran. 600ekoan gehiago sufritu zuten, baina azkenean

abadiñarren indarra eta kalitatea nagusitu zen.

### Irabaztera ohituta

Goma gainean ez dago antzeko errekorrik. Sasoi batean Nuarbek lur gainean erakusten zuen nagusitasunaren antzekoa da gaur egun Abadiñok goma gainean erakusten duena. Zaleak eztira ohituta daude, eta garaipenak normalizat jotzen dituzte: "Irabaztea beti da polita, baina presioa ere sortzen du. Lautik hiru irabaziz gero, norik edo norik pentsatu dezake porrot egin dugula. Eta ez da horrela. Aurrerak gogorak daude, 560koan argi geratu den moduan", dio Mendizabalek.

Abadiñorentzat amaitu dira denboraldiko txapelketa ofizialak, lur gainekoan ez dute eta parte hartuko. Irailean bueltatuko dira lanera, bederatzigarrenez, lau txapelak defenditzeko. ■ J.D.

**Abadiñok zortzi urte daramatza goma gaineko guztiak irabazten**

### 24 Euskadiko Kopa hastear du DRTk

Liga ez dute nahi bezain ondo amaitu, baina Kopa beste kontu bat izan ohi da. Apirilaren 18ko lehen neurketa beheragoko mailako Gaztediren kontra jokatu dute.

### 25 Elorriok igotzea lortu du

Uste baino gehiago sufritu zuten elorriarrek mailaz igotzeko behar zuten puntua urratzeko. Hala ere, azkenean dena izan zen poza, zalaparta, ospakizuna eta txanpaina.

# Liga amaituta, Euskadiko Kopan zentratu da DRT

Bigarren itzulian errendimendua jaitsi eta bosgarren amaitu dute; Kopari maila bat beheragoko Gaztediren kontra ekingo diote



Durangarrak, Bartzelonan, Aratz Gallastegi entrenatzailearen aginduak entzuten. Kepa Aginako

Gernika eta Hernaniren nagusitasuna onartuta, Durango Ilarduyak hirugarren postua zuen helburu aurtengo denboraldian, baina azkenean bosgarren amaitu dute, Vigo hirugarrenarengandik 15 puntura. Bigarren itzuli kaskarra osatu dute. Joanak joan, apirilaren 18an Euskadiko Kopari ekingo diote, Gaztediren aurka.

Bartzelonan 20-10 galdu zuten iragan asteburuan: "Ez ziren gu baino askoz gehiago izan, baina kontzentrazio falta nabaria izan genuen", dio Aratz Gallastegi entrenatzaileak.

Oro har, gustura dago egindako denboraldiarekin: "Lehen urtea izan dut; ni berria nintzen jokalarientzako eta jokariak berriak ziren niretzako. Alde

horretatik aztertuta, denboraldi ona egin dugu".

Dena dela, ondu beharreko hainbat alderdi ikusten du: "Bate-tik, geure buruan gehiago sinetsi behar dugu, anbizio handiagoa izan. Bestetik, alderdi fisikoa landu behar dugu; oraindik aldeaz da nabarmena, baina apur bat estankatuta gaude. Azkenik, taldeak gehiago eman dezake, eta

**A. Gallastegi: "Pozik nago denboraldiarekin, baina gehiago eman dezakegula uste dut"**

horretarako beharrezkoa da konprimiso pertsonal handiagoa".

## Kopa Aste Santu ondoren

Euskadiko Kopan bost taldeko multzo bi daude. Durango Ilarduyaren multzoa Spyro Bera Berak, Irunek, Hernanik eta Gaztedik osatzen dute.

Lehenengo jardunaldian atsedena egokitu zitzaizen eta datorren apirilaren 18an jokatu dute lehen neurketa Gaztediren aurka, Arripausetan. Gaztedik Euskal Ligan jokatzen du -beherago dagoen mailan- eta Durangoko taldea faborito nagusia da. Gallastegik aurreratu duenez, bigarren taldeko jokalariei aukerak emateko baliatuko du Kopa-partidua. ■ J.D.



Patxi Vilak lasterketa bikaina osatu zuen. Judit Fernandez

## Garaipena lortu eta marka berria jarri du Patxi Vilak

Mugarra Triatloi taldeak Durangoko III. Zarate-Elexpe Duetloia antolatu zuen larunbatean. Euskal Herriko Duetloi Zirkuiturako puntuagarria zen seigarren proban Patxi Vila beratarak irabazi zuen gizonen artean (1:49:59) eta Inma Rafael bilbotarrak emakumeen kategorian (2:05:20).

Lagunak-Navarra taldeko Vilak, lasterketa irabazteaz gainera, Durangoko duatloia hiru aldietako markarik onena egin zuen. Taldeka Antxintxika-Algon Triatloi Taldea izan zen onena.

Guztira, 335 atletak parte hartu zuten duatloian, eta horietatik 214k lortu zuten proba amaitzea. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta  
• Areto-futbol entrenatzailea



## Ilusioa eta kemena

Kirolari guztiendako beharrezkoa da bai ilusioa bai kemena izatea bere kirol bizitzan aurrera pauso nabarmenak emateko, baina, askotan, lehiakortasuna handitzen doan bitartean ilusioa eta kemen hori pozoitzen joaten da.

Aurten oso kasu polita ikusteko aukera izan dot, pertsonalki jarraitu dodalako ilusioa eta kemena inoiz galtzen ez dauen jendea; Geube elkarte mutlak. Askok ez genduen ezagutzen elkarte hori, baina bertako kideak askotan aurkitzen genduzen kiroldegian partidua ikusten.

Geuben euren areto-futbol taldea daukie, eta azken urteotan lehiaketa politak antolatu ditue (Kuruztiagako nesken, Kulturalaren, senideek osatutako taldearen edo Bilbotik etorritako beste elkarte baten kontra jokatzu). Lehiaketa horreetan gozamen aparta sentitu dabe ikustera hurbildu diren guztiek (beno, azkenengo aldia nik lan gogorra izan neban: epaile inpartziala izatea tokatu jatan eta penalti polemikoa adierazi neban Durangarren kontra, euren garaipena gaxago jarritz, azkenean lortu eben arren).

Mutil horreen gogoia, laguntzeko prestutasuna eta Durangoko areto-futbol taldeetan daukien ardura ikusita, denboraldi honetan Kuruztiagaren kirol delegatuak bihurtu dira Ivan eta Dani. Zuei, gure delegatu eta lagun handioi, zuen lana eta animoak bihotzez eskertzen deutsueguz. Itxaroten dot zuek eta Geube elkarteak holantxe jarraitzea: gauza on asko irakasten Durangori eta durangarrei. Aupa Geube, jo ta ke!

Adituarentxokoa

## Abadiño pentsatu baino erosoago mahai-tenisean

Liga amaiera konplikatu aurreikusten zena espero baino erosoagoa suertatu da azkenean. Abadiño mahai-tenis taldeak ez du sufritu mailari eusteko. Bost jardunaldiren faltan, segurtatuta zuen maila.

Club Burgos, Caja de Burgos eta Basauri taldeen kontra errenkadan lortutako hiru garai-

penak erabakiorrak izan ziren. Azken hiru partidua presiorik gabe jokatu dituzte, eta emaitzetan nabaritu da. Ligako azken jardunaldian, esaterako, 1-4 galdu zuten Antonio Mendoza azken sailkatuaren kontra.

Abadiño talde igoberria denez, mailari eustea zen helburua eta malgutasunez lortu dute.

## Iris Fuentes eta Lhoussiane Dhame izan ziren azkarrenak lurretan

XXIX. lurretako Hiri Frogan Lhoussiane Dhame marokoarra izan zen azkarrena gizonetan (15:17) eta Iris Fuentes-Pila emakumeetan (17:59). Gizonetan lehenengo bost tokiak Marokoko korrikalariek bete zituzten. Gontzal Sanz eta Reyes Estébez seigarren eta zazpigarren sailkatu ziren. Emakumeetan hirugarren helmugaratu zen Irene Alfonso eta zazpigarren Cristina Petite.



J. Fernandez



# Hiru urtean ateetan geratu ondoren, handien gisan lortu du igoera Elorriok

Jokalariek zelaian eta zaleekin batera ospatu zuten Lehen Erregionalerako igoera



Denboraldi osoan kargatutako tentsioa zelaian bertan askatu zuten jokalariek partidu amaieran. Judit Fernandez

Harmailetan jende asko, txaranga giroa alaitzen, animoak eta zalaparta... Elorriarrak lortzeaz zeuden igoera ospatzen ari ziren partidu atarian. Puntu bat lortzeko bost partidu, bost aukera izan arren, finala ematen zuen. Jokalarien jarreraren nabarmen geratu zen hori; suarregi eta burua bero zelairatu ziren. Apurtuarate aurreratu eta berdinketa iristen ez zela ikustean, "apurren bat estutu ere

egin ginen", onartzen du Angel Diez entrenatzaileak. Gontzalen golak tentsioa poz bihurtu zuen; epaileak partidua bukatutzat eman zuenean poza zoramen bihurtu zen. Espero izanagatik, ospakizuna ez zen apalagoa izan. Eta ez da harritzekoa. Elorriok sei urte zeramatzan (daramatza oraindik) Bigarren Erregionalean eta azken hiru urteetan beti igoeraren ata-

rian geratu izan dira. Aurten aurreikuspen denak apurtu dituzte; oraindik ez dute lehiarik galdu eta lau gol bakarrik jaso dituzte. Liga amaitu arte ildo horretatik jarraitzea da asmoa, ahalik eta marka gogoangarriena lortzeko: "Erlaxatuago jokatu dugu, baina ez erlaxatuta". Bestalde, Angel Diezek Elorrioko entrenatzaile jarraituko du, "bi aldeek aldeko jarrera dugulako". ■ J.D.

## Oizpe txapelketa gaur hasiko da Berrizen

Gaztetxoen mailetan binaka jokatu dute; gazte eta nagusietan, berriz, lau t'erdian

Aurte hirugarren aldia du Oizpe Pilota Txapelketak eta bost mailetan jokatu da. Benjamin, kimu eta haur mailetakoei binaka jokatu dute, eta gazte eta seniorrek lau t'erdian. Finalak San Pedro eta Santa Isabel jailetan jokatu dira, ekainaren 26tik 28rako asteburuan. Txapelketak nobedade bat dakar haur mailan. Bikoteak ez dira herriko banatuko; lehiakortasunaren eta parekotasunaren bila, antolatzaileek osatu dituzte bikoteak. Bariku, zapatu eta domeketan jokatu dira partiduak. Gaur 18:30etik aurrera hiru partidu jokatu dira. Benjamintan, Amarilla eta Navarro berriztarrek oraindik zehaztu bako lurretako bikote baten kontra jokatu dute. Ondoren, Inunzia-

ga eta Uribelarre iurretarrak Loizate eta Etxebarria berriztarren kontra ariko dira. Kimuetan, Zabala-Peio (Durango) eta Arteaga-Granados (Lurreta) neurketa jokatu da, eta haurretan Argiozarrek (Berriz) eta Diezek (Atxondo) Urretxuko Apaolaza eta Alberdi izango dituzte aurrean. Lau t'erdian zapatuan Bihar 10:30etik aurrera lau t'erdiko lehia interesgarri bi daude. Gazte mailan Iturbe gernikarrak Elorriaga bermeotarraren kontra jokatu du, eta nagusietan Perosanz berriztarrek Olalde mallabitarra du aurkari. Azkenik, domekan haur mailako partidu bi daude: Munozguren markinarrak eta Bikuña elorriarrak Zaldibarko Pradera eta Callejaren aurka jokatu dute. Jarraian, Guti (Durango) eta Arkotxa (Markina) Alberdi II.a (Berriz) eta Arkotxaren (Lurreta) aurka ariko dira.

## Gimnasia erritmikoa ikusgai etzi Landakon

Bizkaiko Gimnasia Federazioak antolatuta, Gimnasia Erritmiko Ligako hirugarren jardunaldia jokatu da Landako Kiroldegian etzi, 10:00etatik 19:00etara. Kimu mailako gimnastak lehiatuko dira. Uztai taldeak taldeka zein banaka parte hartuko du. Durangoko taldea arratsaldean

lehiatuko da, 16:00etatik aurrera. Lehenengo taldea laugarren tokian irtengo da; bigarren taldeari, berriz, azkeneko irtetea egokitu zaio. Banakako lanean Jone Serrano, Julene Grande eta Leire Sendino dira Uztai taldeko gimnastak. Banakako sailkapen probak 17:50ean hasiko dira.

## Agenda


- FUTBOLA**  
OHOREZKO MAILA  
**Berriz - Somorrostro**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Berrizburun  
**LEHEN ERREGIONALA**  
(gizonak)  
**Zaldia - Ermua**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Solobarrian  
**BIGARREN ERREGIONALA**  
(gizonak)  
**Ezkurdi - Sondika**  
Zapatuan, 12:00etan,  
Arripausuetan  
**LEHEN ERREGIONALA**  
(emakumeak)  
**Lurretako - Abanto**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Larrakozelain  
**BIGARREN ERREGIONALA**  
(emakumeak)  
**Elorrio - Portugalete**  
Zapatuan, 16:00etan,  
Elezalden

- ARETO-FUTBOLA**  
EUSKAL LIGA  
**Sasikoa - Aldaz**  
Domekan, 17:00etan,  
Landako kiroldegian  
**GOREN MAILA**  
**Elorrioko Buskantza B - Elorrieta Aero Link**  
Domekan, 12:00etan,  
Elorrioko kiroldegian  
**Kurutziaga - Altamira**  
Zapatuan, 19:15ean,  
Landako kiroldegian  
**LEHEN ERREGIONALA**  
**Abadiñoako Gaztetxe - Iturriondo B**  
Zapatuan, 15:10ean,  
Elorrioko kiroldegian  
**Abadiñoako Lagun - Bikaina**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Berrizko kiroldegian  
**Mallabia Bastida - Bermeo**  
Domekan, 17:00etan,  
Zaldibarko kiroldegian  
**BIGARREN ERREGIONALA**  
**Gu Lagunak - Usansolo**  
Zapatuan, 16:45ean,  
Landako kiroldegian  
**Hasi Durango - Beseka**  
Zapatuan, 15:30ean,  
Landako kiroldegian  
**Mendibeltz - Saltzalleak**  
Zapatuan, 18:00etan,  
Landako kiroldegian

- SASKIBALOIA**  
LEHEN MAILA (emakumeak)  
**Tabirako Baqué-Gernika**  
Zapatuan, 19:00etan,  
Landako kiroldegian  
**LEHEN ERREGIONALA**  
**IGOERA FASE (gizonak)**  
**Tabirako Baqué - Centro Salmantino**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Landako kiroldegian  
**LEHEN ERREGIONALA**  
(emakumeak)  
**Tabirako - Paules**  
Domekan, 11:00etan,  
Landako kiroldegian

### SAILKAPENAK >


| Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak |    | Saskibaloia / 1. maila / Jaitsiera Fasea/ gizonak |          | Saskibaloia / 1. maila / Euskadi/ emakumeak |           |
|------------------------------------------|----|---------------------------------------------------|----------|---------------------------------------------|-----------|
| 1- Portugalete.....                      | 60 | 1- Urdaneta.....                                  | 9 (+57)  | 1- Abaroa.....                              | 20 (+272) |
| 2- Amurrio.....                          | 56 | 2- Tabirako.....                                  | 8 (+74)  | 2- Bera Bera.....                           | 20 (+386) |
| 3- Beasain.....                          | 56 | 3- Bide Bide.....                                 | 8 (+72)  | 3- Gernika.....                             | 19 (+287) |
| 4- Elgoibar.....                         | 56 | 4- Bidegintza.....                                | 8 (+52)  | 4- Ardoi.....                               | 19 (+229) |
| 5- Lagun Onak.....                       | 55 | 5- Pamplona UPNA.....                             | 6 (+35)  | 5- Atletico SN.....                         | 17 (+56)  |
| 6- Gernika.....                          | 48 | 6- Mikeldi.....                                   | 6 (-24)  | 6- Getxo.....                               | 16 (+79)  |
| 7- Basconia.....                         | 45 | 7- Mondragon Uni.....                             | 5 (-26)  | 7- Tabirako.....                            | 15 (+171) |
| 8- Zamudio.....                          | 43 | 8- La Peña.....                                   | 4 (-54)  | 8- Arabako EHU.....                         | 14 (+50)  |
| 9- Zalla.....                            | 43 | 9- Getxo.....                                     | 3 (-40)  | 9- Obenasa.....                             | 14 (+53)  |
| 10- Leioa.....                           | 40 | 10- Goierri.....                                  | 3 (-136) | 10- Irlandesas.....                         | 9 (-227)  |
| 11- Kulturala.....                       | 38 |                                                   |          | 11- Unia. Navarra.....                      | 8 (-36)   |
| 12- Arenas Getxo.....                    | 38 |                                                   |          | 12- Artieda.....                            | 7 (-170)  |
| 13- Amorebieta.....                      | 37 |                                                   |          | 13- Easo.....                               | 7 (-243)  |
| 14- Santurtzi.....                       | 36 |                                                   |          | 14- Las Gaunas.....                         | 7 (-262)  |
|                                          |    |                                                   |          | 15- Astigaraga.....                         | 4 (-333)  |
|                                          |    |                                                   |          | 16- Deusto-Loiola.....                      | 3 (-312)  |



Durangoko Kulturalak 39 gol sartu eta 38 jaso ditu orain arte



# LAUHANKA >



Talde bereko animaliek hierarkia konkretu bat osatzen dabe

6 eta 15 zm. arteko luzera izan ohi dau animali honek, eta kolore bizikoa dela esan leiteke

Ganba, muskuilu, txibi eta begatalak dira euren elikaduraren oinarri

## Arrain pailazoa, modan dagoen arrain koloretsua

Ozeano Bareko koralezko arrezifeetatik dator espezie berezi eta bitxi hau

Azken urteetan modan ipini den arraina dogu pailazoa. Batez be umeen artean da ezaguna; izan be, *Nemoren bila* izeneko pelikula arrakastatsuko protagonista mota honetako arraina zen. Bere definizioari jarraiki, Nemo arrain atsegin eta dibertigarria zen, eta hainbat ikus-entzule bereganatu zituen modu horretan. Hori dela-eta, jente askok erosten dau orain arrain pailazoa etxean konpainia egiteko.

Arrain berezi hau Ozeano Bareko koralezko arrezifeetan bizi da berez. Bere biziraupena segurtatzeko, komenigarria da haztegiatan sortutakoak erostea, nahiz eta horreek garestiagoak izan. Kontua da ez dagozela espezie horretako arrain asko; Nemoren "boom"-aren ondoren, adibidez, 150.000 arrain erosi ziren, horrek dakarren arrisku guztiagaz.

6 eta 15 zm. arteko luzera izan ohi dau animali honek, eta kolore bizikoa dela esan leiteke. Horiak, laranja edo gorriak izan leitezke pailazoak, kolore horreetako guneak eta marra zuriak tartekatuta.

### Ugalketa bitxia

Lehen aipaturiko tamainaren ezaugarria oso lotuta dago ugalketa prozesuagaz. Izan be, talde bereko arrainek hierarkia konkretua osatzen dabe.

Taldeko arrain handiena beti emea izaten da, eta bigarren handiena emea ugaltzen dauen arra izaten da. Gainerako taldea tamaina anitzetako ditueen arrek osatzen dabe. Emea hiltzen denean, ar handiena eme bihurtzen da, taldearen gidaritza hartuz. Arraren lekua beste arrainen artean handiena denak betetzen

dau. Posizino hierarkiko hori daukien bitartean, hazten jarraituko dabe familia handituko daben bi arrainok.

### Zainketarako aholkuak

Gure etxean arrain pailazoen familia sortzen badogu –bat baino gehiago erosiz gero– ezinbestekoa da denak aldi berean integratzea. Lehendik etxean daukagun taldera besteren bat gehitzen badogu, oso posible da burrukak hastea denen artean.

Pailazoentzako bizitoki egokiak arrainontzi edo akuario handiak dira, bertan ur epela edo beroa daukiela: 24 eta 27 graduren artekoa, hain zuzen be.

Ganba, txibi, muskuilu eta begetalak dira arrain honen elikaduraren oinarriak. Bananduta edo pure estiloan emon ahal jake; beti be, kantidad txikietan.

Nire txakurraren kakan, mogitzen diren ar zuri batzuk ikusi ditut. Zer dira ar horreek? Zelan hartu ditu? Maialen Garcia (Durango)

Ar horreek hesteetan agertzen diren parasito batzuk dira. Horreen eraginez izaten ditue beherakoak, adibidez. Beharrezkoa da txakur eta katuak sarri samar desparasitatzeko; euren onerako ez eze, guretzako be bai. Izan be, geuri be transmititu ahal deuskuez horreetako batzuk. Gorozkien bitartez hartzen ditue parasito horreek: hortik dator kaleko kakak batzearen garrantzia.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)



Alberto Cimarro  
Etorbide Albaitari klinika





# PLATERUENA APIRILA

2009 EGITARAUA



www.plateruena.net



**DOKUMENTALA**  
**COLORADO ERREKA,  
GRAND CANYON**  
20:00etan. Sarrera doan



**MUSIKAKONTZERTUAK**  
**VITAL REMAINS**  
+ ORDER OF ENNAD + SLUDGE  
+ TRIBULATION  
20:00etan. Sarrera: 15-18€



**ZINEAFUSKARAZ**  
**FILM LABURREN  
ZIURKUITOA**  
20:00etan. Sarrera doan.



**MUSIKAKONTZERTUAK**  
**RUSSIAN RED**  
22:00etan. Sarrera: 18 + gastuak 20€



**MUSIKAKONTZERTUAK**  
**AKATZ**  
22:00etan. Sarrera: 7€



**AISIALDIAEUSKARAZ**  
**OLGETAN**  
17:30etan. Sarrera doan.



**DANTZAIKUSKIZUNA**  
**AURREZ  
AURRE**  
20:30ean. Sarrera doan.



**MUSIKAKONTZERTUAK**  
**ENTOMBED (Swe)**  
+ RHINO + COBRA  
22:00etan. Sarrera: 18 - 20€



**MUSIKAKONTZERTUAK**  
**VOLBEAT (Dk)**  
+ Pog Mo Thon  
19:30ean. Sarrera: 15-19€



**MUSIKAKONTZERTUAK**  
**TRASH & BURN FEST**  
DARKEST HOUR + BLEEDING TROUGH +  
BENEATH THE MASSACRE + CARNIFEX + WAR  
FROM A HARLOTS MOUTH + ARSONIST GET  
ALL THE GIRLS + SUCCESS WILL WRITE  
APOCALYPSE ACROSS THE SKY  
22:00etan. Sarrera: 25-28€



**GAUELEKTRONIKOA**  
**DJ DAVID MEDINA (ZUL)**  
+ PLATERUENA RESIDENTS DJs:  
Alain Medina/Ruben Kostas/Iker Undersound  
23:00etan. Sarrera: 3€ (2€ Flyer-arekin)



**DANTZALDIHILTARIA**  
**AIKO  
ERROMERIA**  
19:00etan. Sarrera doan



**MAIATZEAN DATOZENAK** 07 II. DURANGO HOTS JAM SESSION 09 AIKO ERROMERIA 15 DARKNESS BY OATH 16 BERTAN BERA + FISION BOYZ  
21 GOD IS AN ASTRONAUT 22 LOR 23 FUNDACION TONY MANERO 29 THE CHERRY BOPPERS 30 EXTREME NOISE TERROR







# IRAGARKIAK

## LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali ANB (tarte) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ
- Deitu 94 621 79 02 telefonora

## ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereizituta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

**Durango.** Pisua salgai. Goitik behera berriztatutako etxebizitza, estreinatze-ko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra urrutiko agintearekin. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

**Elorrio.** 67 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Kanpora ematen du. Sotoarekin. Tel.: 94 682 02 26 eta 620 441 249

## ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai Errioxan, San Vicente de la Sonsierran. Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza ditu. Bista onak. Tel.: 657 734 019

**Otxandio.** Pisu berria alokagai, trastelekua barne. 3 logela, komun bi, egongela, balkoia eta sukalde guztiz hornitua. Tel.: 655 726 760

**Durango.** Logela bat dut alokagai. Tel.: 659 749 084

Apartamentua alokagai Conilen. 3 logela, terraza, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

Apartamentua alokagai Torreveijan. Urbanizazio pribatuan, gune berdea eta igerilekuekin. Hiru logela, komuna, sukaldea eta solariuma. Tel.: 615 779 622

## KONPARTITU

**Elorrio.** Pisua konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Tel.: 609 939 095. (Lore)

**Durango.** Pisua konpartitzen da, gela, bainugela, egongela propioa eta sukalde konpartituekin. Tel.: 650 738 724

## IRAKASKUNTZA

### EMAN

Fisika ikaslea DBH edo batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emateko prest: fisika, matematika, kimika... Tel.: 615 711 225

Ingeniaritza ikaslea klase partikularrak emateko prest: matematikak, fisika-kimika, euskara, ingelesa... (EGA eta advanced). Tel.: 616 345 890

Alemanierako klaseak ematen ditut. Etxera joateko prest nago. Tel.: 609 939 095

## OHARRA

Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

**Berbaro elkarteak** tituludun begirale eta koordinatzaileak behar ditu udalekuearako. Eman izena apirilaren 24a baino lehen. Harremanetarako: gazteak@berbaro.com

## LANA

### ESKAERAK

Emakumea behar da, goizetan umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 618 896 591

**Berriz.** Esperientziadun estetizista behar da lan egiteko. Curriculumak aurkeztu. Tel.: 94 682 68 83

Pertsona bat behar da umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Derrigorra da kotxea izatea. Tel.: 660 723 602

